

Xabier Montoia

itxaropen / hope





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

XABIER MONTOIA

itxaropen / hope

Ipuinok lehenago bilduma hauetan argitaratu ziren:

'Euskal hiria sutan'; 'Fucking Artists'; 'Hondamendia'.

Booktegik Elkar argitaletxeari ipuinak berplazaratzeko baimena eskertu nahi dio biziki.

Edizio hau elebiduna da. Xabier Montoiaren ipuinak euskaraz irakurri nahi badituzu, esteka honetan sakatu, mesedez:

[itxaropen](#)

Oier Guillanek egindako '*itxaropen*' ipuinaren audioa [hemen](#) entzun daiteke.

This is a bilingual edition. If you wish to read Xabier Montoia's stories in English, please click on this link:

[hope](#)

The audio recording of 'hope' is available [here](#).

Itxaropen

HONDAMENDIA

LORIA OMEN ZION HALABEHARRAK GORDEA

ITXAROPEN

HONDAMENDIA

Elkarrizketa bat egin zioten behin. Ez zen preseski izan berak, Aitor Urkolak, espero zuena (abuztua zen, kazetariak egunkariak betetzeko larrien ibili ohi diren garaia), baina bai sekula egin dioten bakarra. horregatik du oraindik gogoan, horregatik eta harrezkero hamaika aldiz irakurri duelako ere bai. Amaren etxean du, bere gainerako altxorrekin batera: Maddi eta biak (irriz!) ageri diren argazkia, bere liburu bakarraren zenbait ale, eta abar. Ongi gogoan du elkarrizketatu zuen kazetari gaztea ere –bolizko matrail-hezurak, begiak bi esmeralda, ezpain bete gonbidagarriak, zango luze bikainak–, eta nola galdetu zion, ernegu antzeko zerbitu ahotsean: Baina, zu zer zara, zehazki?

Hondamendietan aditutzat jo zuen bere burua, erantzun umoretsu bat eman nahian. Kazetariari kopeta akasgabea une batez argitu zitzaiolako uste osoa izan zuen, eta, urte anitz joanagatik ere txinpartatsua nahi zuen definizio haren ondotik, oraindik horretan dago. Nolanahi ere, hark serio demonio jarraitu izan balu ere, berari bost, gero eta egokiago baiteritzo orduko erantzunari. Bere lanbidez ari zitzaion kazetariari, jakina, azken hogeitaka urtez munduan izan diren hondamendi ugarietatik askotxotan ibili ondoren. Gerrak, lurrikarak, haizeteak, goseteak, suteak, izurriteak, zer ez du ezagutu? Ibiliaren ibiliaz ikasi du dakiena, eskarmentu hutsez. hori adierazi nahi izan zion.

Traketsa da hitzekin (horregatik idazten ote?), beti izan da. horrek hainbat buruhauste eragin dio, hainbat nahasmen petral. hala iruditzen zaio, bere bizitza zer izan den pentsatzera derrigorturik dagoen honetan. Gérin ere horretan ari da, irudiz. Burumakur, kopetilun, haren baitako zurrunbiloa erraz irudika dezake. Aspaldiko lagunak dira, eta ongi baino hobeki ezagutzen dute elkar, beraz. Urkolak asko zor dio. Irakatsi zion lanbidez gain, bizia ere zor dio: hilik legoke Ruandatik atera izan ez balu. Kigali sutan zegoenean eta bera bakar-bakarrik hotel merke bateko gela batean, haraino lagundu zuen argazkilariak deus esan gabe alde egin ondoren. Médecins sans Frontières erakundearentzat lan egiten zuen Gérinek, eta haren laguntzaile hasi zen, batez ere antolakuntza lanetan. Errefuxiatuen guneetara eraman beharrekoak eramateko kamioiak bilatzen eta ordaintzen zituzten, sendagileak eta erizainak bertako sasi ospitaleetan banatzen, eta beste hamaika halako. harrezkero, elkarrekin ibili dira biak, hainbat kontinentetan barrena.

Gérinek begiak itxita dauzka. Thompson ingelesak ere hausnarrean dirudi. hirurak dira paretak Koranaren suraz beterik dituen gela honetako bizilagunak. Bizilagunak? Ez, bahituak. Alepon lanean ari zirelarik atxilotu zituzten, oraindik zehaztu ezin duten erakunde islamzale baten partaideek. Atxilotu eta, egun batzuk batera eta bestera ibili ondoren, gela honetan sartu zituzten, aspaldi, oso aspaldi.

Ezer gutxi dakite gertatzen ari zaienaz. Sirian jarraitzen dutela uste dute, baina Iraken edo Libanon ere egon litezke. Edo basamortu baten erdian. Aukera ugari, gutxienez, bahituak

dituztenen nortasunari buruzkoak beste. horren gaineko hipotesiak egiten eman ohi zuten hasieran denbora. Bakoitzak bere iritzia azaldu eta horren aldeko arrazoiak aipatzen zituen. Laster, ordea, alferrik ari zirela ulertu zuten. Aspertu egin ziren. zentzurik gabeko jarduna zen hura, inondik ere. hortik aitzina isilik egon dira, gehienbat oroimenaren matazan harrapaturik. Esperantza zapuztuak, bizitza oso baten damuak, bazuten zeri eragin, bai, eta eragiten aritu dira harrezkero, handik ez zirela bizirik irtenen susmatzen hasi zirenetik, batik bat.

No future!

Gaztetako lelo hori kantatu ohi die Thompsonnek, etorkizun dutena solasera ekartzen duten bakoitzean. Gauza bera kanta dezakete haiek ere: ozta ordu batzuk lehenago bahitzaileek grabaturikoak argi utzi die zer gertatuko den hurrengo. zer gertatuko zaien. Bakoitzari dagokion gobernuari salbatzeko erregu etsiak filmatu eta, luze gabe, hondarreko grabazioa etorriko da, behin betikoa: begiak tapatuko dizkiete eta aitzo zorrotz batek egingen die, kameraren aitzinean, zintzurra. hiru fedegabe, hiru deabru gutxiago munduan. horra.

No future, hiruretariko inork ez baitu uste gobernuak deus egingen dutenik. Ezin dugu terroristekin negoziatu, adieraziko dute, hori eginez gero, bahiketak ugarituko lirarteke, eta terroristak sendotuko. Politikariak ezagutzen dituzte, eta haien baitan ez dago esperantza izpirik: haienak egin du. horregatik daude isilik. Amorrua eta ernegazioa esperantza bezain alferrikakoak direla ikasi dute, denboraren poderioz. Badakite beren egoeran edozein keinu zakar edo hitz gora, alferrikakoa izateaz gain, itsusia ere litzatekeela. Oroimena geratzen zaie soilik, eta horri atxikitzen zaizkio, kosta lain kosta.

Urkolak behiala kazetari panpoxari emaniko erantzuna oroitzea ez da kontu nartzisista hutsa: guztiz irrigarria da bere egoeran, aise irudika daitekeenez. Aitzitik, bere bizitzaren funtsa horretan datzala iruditzen zaio. hondamendirik gabe ez litzateke ezer. Esaterako, Maddik eragin ziona gabe, sekula ez zen etxetik mugituko. Edo, bere ustezko lagunak Kigalin traizioa egin izan ez balio, ez zukeen Gérinekin topo egingen –hobeki agian, begira nora ekarri duen–. Edo bere literatur hondamendia: inork irakurri ez zuen *Lili bat apika* izeneko poema bilduma. Poema onak ziren, bere ustez, batere aipamenik gabe oharkabean pasatu zirenak, kritikariek askoz okerragoak ziren beste poeta batzuk famatzen eta Parnasora –edo Olinpora ote zen?– goratzen zituzten bitartean. hori gabe, ordea, inoiz ez zen azken urteetan esku artean izan duen egitasmo erraldoian murgilduko. Baina lotu egin zitzaion, halako lanak derrigortzen zuen gisan. Eta lotu ere, zer egin behar zuen hausnartzen makina bat hilabete iragandakoan. Orain bezala, egin zioten elkarrizketa bakarrean esandakoak gogora ekarri eta, bat-batean, argi ikusi zuen: hondamendiak, horra nire gaia, horra zertaz mamitu behar dudan nire ametsetako liburua, euskal irakurle eta kritikari ezjakinak ez ezik, mundu osokoak durduzatu eta txundituko dituenak. Ideia horrek eraginiko pozarekin batera, lehenago bururatu ez izana damu zitzaion, euskal kritikariei bere balioa lehenago aitortu ez izana damutuko zitzaien bezalaxe. hain zen ideia sinplea, hain zen logiko eta begi-bistakoa: hondamendia. Dena zegoen horretan, edozein gizon edo emakumeren sentipenak, muturreraino eramana, gainera. hil ala biziko egoerak izan ohi dira hondamendienak, ez itxurakeriarik, ez gezurrik onartzen ez dutenak. Maitasunak, adibidez,

goia jotzen du halakoetan, biluzien eta distiragarrien agertzen da, itsugarrien. Semea edo alaba salbatzearen bere burua galtzen duen ama edo aitarengana doakio gogoia, eguneroko ogia mikatz duten herrialdeetara, hango lazgarrikerietara. Beirut, Sudan, Kaukasoa, Bali, El Salvador... handik eta hemendik, atertu gabe datozkio ehunka irudi bortitz, oinazearen entziklopedia eskerga osatzeko. zerbait shakespearretarra, nolabait adieraztearen: hotsa eta ardaila. Edo tolstoitarra: gerra eta bakea, epika eta maitasuna, lirika eta kanoikadak batera. Gaixo bere garuna, zenbat lan.

Lanaren erraldoitasunak ez du inoiz kikildu; ordea, hari eskaini dio bere astia. Kobazuloetan idatzi du, erortzeaz zeuden etxeetan, zaurituz beteriko ospitaleetan, haien oinazezko garrasiei eta kanoien danbateko hurbilei sorgor. Nonahi eta nolanhia idatzi du eta dozenaka kaier bete, munduan barrena ikusi, entzun, sentitu eta pentsaturikoa paperean gorde nahian. hala, xehe-xehe jaso ditu ezagutu behar izan dituen bazterretako jendearen aztura, jokaera eta izaera, aberatsen harrokeria eta lukurreria zein pobreen ezinbesteko morrontza eta miseria. Deus ez du isildu.

Bizitza oso bateko lana da, bere *opus magnuma*, eta, jakina, islamistek kenduriko hiru kaierak izan ezik, amaren etxean ongi gordeak ditu gainerako guztiak. horiexek ditu gogoan, anitzetan bezala, atea ireki delarik.

Peter da, ingelesez mintzo den beren zaintzaile bakarra. Abdala omen du benetako izena, baina haiek hala esaten diote, sortzez ingelesa delakoan. Thompsonek jakinarazi zien: azentu horrekin... Londreseko iparraldekoa.

Gu akabatzeraz al zatoz?

Zaindariak erantzun ez, baina beltzuri egin dio Thompsoni.

Ez, Joe, zerbait behar ote dugun galdetzeraz etorri duk, diotso Gérinek.

Eta Urkolak: Gure azken nahia, hain zuzen ere.

Nik emazte bat nahiko nizek, Thompsoni.

Oraindik ere, ilun zaindariaren bekokia.

Ongi legokek hori, bat dator Thompsonekin Gérin. Emakume bat eta, aukeran, whisky botila bat ere bai.

Are ilunago zaindaria.

Txorakeriarik ez, mesedez, erregutu die kideei Urkolak.

Txorakeriak?, harritu da Gérin.

Txorakeriak hireak, bota dio Thompsonnek, Urkolak deus esan ahal izan baino lehenago. Alferrik ari haiz zakil-poto hauekin. Ez ditek errukirik ezagutzen, hiri ere berdin-berdin eginen diate zintzurra, horretarako garaia heltzen denean.

Hala moduzko frantses batean solastatu dira, Peterrek bisitatu dituen bakoitzean egin duten antzera, zaindariak frantsesa ere ulertzen duela hirurek susmatu arren.

Hiru ogi kozkor, zenbait datil eta pegarra bete ur utzi eta alde egin du zaindariak, etorri bezain muturik.

Haiek ere hitzik gabe jan dute, poliki, ogi aski gogorra murtzikatu orde, opil gozo bana erabiliko balute bezala ahoan. Otordua eta gero etorri dira hitzak.

Gaizki esan zioat Peterri, hasi da Thompson. Emazte bat ez, oroz gain, zigarreta bat diat gutizia.

Nik ere bai, baina zintzurra garbitzeko beste zerbaitekin batera, dio Gérinek.

Zintzur malapartatua berriz ere. Ez aipa halakorik he-men, mesedez, eskatu dio Urkolak.

Isildu dira hirurak. Luzeak izan ohi dira haien isilaldiak eta horiek profitatzen ditu Urkolak, bere liburuaz pentsatzeko. horiek eta ia gainerako aldi guztiak, etenik gabe ari baita, nola edo hala, horretan. Obsesioa du, aitortu beharrean dago, Gérinek maiz leporatu dion gisan. Gérin aluak ongi ezagutzen du. Behin ere ez dio *Hondamendia* aipatu, baina urte luzetan izan du bere idazteko premiaren lekuko mesfidatia. Nekeza zaio ulertzea nola norbaitek eman dezakeen egun osoa horretan, bizitzak eskainiriko atsegin bakan iragankorrei uzkur.

Bitxia haiz gero.

Gérinen iritzia, Maddirena ere bazen. Behin baino gehiagotan jakinarazi zion ahantzi nahi eta ezin duenak. Bitxia.

Bere ustez, bitxia izatea kaltegabea da. Kaltegabea ez ezik, onuragarria ere bada, batez ere, poeta izanez gero, zinezko poeta izanez gero, bera gaztetatik izan den gisan, aspaldi poemarik idatzi ez badu ere. hala eta guztiz, seguru da *Hondamendia* poesiaz beterik egonen dela, mota askotako poesiaz. Liburua idatzi ahal izanen ote duen, aldiz, ez da horren seguru. Bizidunek baizik ezin idatzi, eta Urkola laster hilik egonen da. horrek beldurtzen eta ikaratzen du, noski, baina areago du beldurtzen eta ikaratzen jakiteak burutu gabe utzi beharko duela hainbeste neke eta buruhauste eragin dion lan erraldoi bikaina. hori bai mingarria. Libururik gabe, oro alferrik. Liburua da ahantzia ez dela izanen bermatzen ahal dion bakarra. hori gabe, fini bere ametsak: euskal literaturaren historian merezi eta, Thompsonnek esanen lukeen gisan, *establishmentak* (argitaletxeak, kritikariak, irakasleak...) beti ukatu dion leku gorenaren aitortza; Maddi, azkenean, beraz harro eta abar. Justizia poetikoa, funtsean.

Ez da Thompson bezain argia izanen, ez eta Gérin bezain maltzurra ere, baina aski ibili da, justizia –poetikoa edo bestelakoa– arras lore bakana dela jakiteko. Errealitateak arrazoia eman nahiko balio bezala, orduan entzun du ateko sarrailen hots nahastezina. Peter da, jakina.

Peter, barkatu, Abdula, agurtu du adeitsu Thompsonnek, kamera batekin espero zintudan, eta esku-hutsik zatoz.

Esku-hutsik ez.

Non dago, ba, lehenago eskatu dizudan emaztea?

Emazterik ez. Zuentzat nahi dituzue guztiak, noski. Ulegarria da. Gazteak zarete eta ezin duzue paradisura heldu arte iguriki.

Ez emazterik, ez eta whiskirik ere, gaineratu du Gérinek.

Musulman bati ez eskatu bekatu egiteko.

Guretzat, ordea, bertutea da, karitatea, egarri denari edateko ematea bezala.

Harriturik entzun ditu Urkolak lagunaren hitzak, hura betidanik izan baita ateo amorratua. Adar joka ari zaio, ziur.

Ez naiz teologiaz edo erlijio-konparaketez aritzera etorri, eten dio zaindariak.

Noski.

Baina zer edo zer ekartzera ere ez zara etorri. Esku-hutsik zatoz eta.

Ezetz esan dizuet. Hartu!

Zaindariak zerbait utzi du Thompsonen esku-ahur zikinean.

Emazterik ez dugu, baina profetak mujahidinoi zerurako agindu zigun beste hori bai, azaldu die, egin berri duena zurrizko premia balu bezala.

Bola txiki ilun bat da Thompsonnek eskuan daukana. zigarreta mutur bat, pipatzeko papera eta pare bat pospolo ere utzi dizkie. zaindaria alde egitera doalarik, geratzeko esan dio Gérinek.

Harrigarriro, eskatu bezala egin du zaindariak, eta begira geratu zaio frantsesari, jakin-mina ezkutatu ezinik.

Whiskirik ekarriko ez duzunez, har ezazu nire hondarreko eskaritzat, eta erre ezazu gu garen bekatari handiekin, behingoz. Nekaturik gaude gu hirurok elkarrekin mintzatzeaz eta eskertuko dugu beste ahots bat aditzea. Onik eginen digu eta zuen jainkoaren oniritzia izanen du. Bakarrik dagoena lagundu, horixe duzu karitatea.

Zalantzarik gabe, ustekabez beteriko gizona da Gérin. Urkolak ez zuen sekula susmatuko seminariotik iragana zenik. Frantximant alua.

Karitatearen aipamenak izan du eragina zaindarengan. Ate ondoan dago, pentsakor.

O.K.

Horixe esan du zaindaria, dagoen tokian jarri eta haiei so geratu aitzin.

Berehala mintzatu da Gérin: Ederki!

Eta Thompson ere berehala lotu zaio lanari. Artolak ezin du ingelesaren eskuetatik begirik baztertu, ikuskizun deritzo haren trebeziari. Ezagun du anitzetan aritu dela langintza horretan. Aise ari da, ia automatikoki. Mihi zuriar paperaren xerrenda itsasgarria busti, txirriari hondar ukitua eman eta, burututzat jo duelarik, zaindaria harro eskaini diola ikustea ere harrigarria izan da Artolarentzat. Susmagarria ere bai. Lehenbizi Gérin, Thompson orain: elkar harturik ari ote, berari deus aipatu gabe?

Ezekoa eman dio zaindaria Thompsonen eskaintzari. Pipatu lasai, zuen ondotik pipatuko dut neuk. Hark eskatu bezala egin dute. Thompsonek piztu du eta Gérini ezarri dio ezpainetan gero, pare bat xurgada sakon egindakoan. Antzera jokatu du Gérinek. Urkolak, aldiz, jarraian nahi izan dio zaindaria pasatu, sekula ez baita drogekin ongi moldatu.

Pipatu lasai, poeta, badugu astirik. Zaindaria eskatu bezala egin du, haren hitzak gogoan. zergatik poeta deitu, zer adierazi nahi izan du astia badutela esan dionean? zertarako astia? hiltzeko, noski. Brastakoan jo du hotzikarak. hatsa hartu du: lasaitu beharrean dago. haxix, kifi edo pipatu berri duen dena delako horregatik ote den jakin gabe, badaki paranoiaren sarean erortzekotan dela.

Bitartean, Urkolaren arrangura sumatu ez, eta solasean ari da Thompson zaindariaekin: Banekien mutil jatorra zinela funtsean, bihotz onekoa, nahiz eta orain arte ez erakutsi. Antzeman nizun, ordea, antzeman nizunez.

Thompsonen hitzek, irudiz bederen, eragin berezirik ez zaindariaengan. Urkolaren esku dardaratsutik jaso zigarreta dauka berean, ezpainetara bidean.

Ona izan behar baita –Thompson solasean beti Londreseko erosotasuna, familia, lagunak, oro utzi eta hemengo mortu hauetara etortzeko. Eskuzabala izan beharra dago. Zigarreta berriz heldu zaion arte, hizketan jarraitu du Thompsonen. Jakina, Gérinek txanda hartu dio, zaindariarekiko lausengu saioan.

Segitu koipea ematen, segitu, ea zerbaiteko balio dizuen horrek, bere baitarako Urkolak, sutan. Argi dago, alde zuzenetik zehaztutako plan baten arabera ari dira. hain zuzen ere, berari ezkutaturiko plan baten arabera. zer dela eta? Bera sakrifikatu beraiek salbatzearren, hori ote dute asmo?

Argitu egin da zaindaria begitartea halako batean, hain nabarmenki argitu, non Urkola ere ohartu baita, hausnarketa goibeletan hondoraturik egon arren. Zuk ez dakizu deus nitaz, zaindaria Thompsoni. Nik, aldiz, asko dakit zutaz. Zer edo zer badakit, hala ere. Esaterako,

badakit Londresen sortu edota txikitatik han bizi izan zarela. Are gehiago, Londreseko iparraldekoa zarela esanen nuke.

Nahi duzuna esan dezakezu, onartu dio zaindariak. Baina ez ahantzi nik zuen pasaporte eta paperak ditudala. Britainia handia, Frantzia, Espainia. Betiko hiru estatu fedegabe eta inperialistaren pasaporteak.

Ni euskalduna nauzu, argitu nahi izan dio Urkolak. Ez espainola. Areago, Espainia eta Frantzia dituzu gure zapaltzaileak, zuek zapaltzen zaituzteten berberak. Hori esan eta lagunena begiraden zitzadak nabaritu ditu lepo ondoan. zer espero zuten, ba?

Euskalduna?

Baietz, Urkolak.

Musika ona, euskalduna.

Aho zabalik utzi du zaindariak. Utzi ditu, ikustekoak baitira Gérinen eta Thompsonen aurpegiak ere.

Ezagutzen duzu? Zer edo zer. Aspaldiko kontuak dituzu horiek niretzat, fededun bilakatu aitzinekoak.

Eta nor ezagutzen duzu, Mikel Laboa agian?

Ez, hori ez. Negu Gorriak aditzen nuen gaztetan. hara. Baina... ulertzen al zenuen haiek kantatzen zutena?

Kantuen hitzak hainbat hizkuntzatan agertzen ziren diskoetan.

Noski, erdi desenkusatu da Urkola. Ni ere ederki oroitzen naiz disko haiez.

Egia dio Urkolak, Maddiren talde kutuna zen Negu Gorriak. Aspaldi, biak bereiztezinak ziren garaian.

Gora herria, ei, kantatu du zaindariak, euskara xelege batez.

Gora!, irten zaio Urkolari deblauki.

Gora Athletic!

Gora!, berriz Urkolak.

Beste egoera batean, beste nonbait egon izan balitz, lotsatu ere egingen zen bere buruaz, hala oihuka ikusirik. Orain ez. Pipatu duenaren eragina izanen da seguruen, baina bost axola zaio dena. hala behar du, noski, heriotzaren atarian egonik.

Iritzi berekoak dirudite lagunek, solasean ari baitira bizi-bizi. Aspaldiko partez irri dagite. Bistan da, berataz jabetu den lasaitasun sakon bera jabetu da haietaz ere. Areago, zaindaria berak ere sekula baino *humanoago* dirudi, terroristez sekula fidatzerik ez badago ere, honezkero ongi dakienez. Bere gogoetatik Thompsonnek atera du: zer talde mota da hori? Rock, rap, folk? Ona behar du izan gure adiskidearen gustukoa izateko.

Rock eta rap ere bai, nik uste. Dena den, ez egin kasu handirik, musikaz ezer ez dakit eta.

Literaturaz bai, ordea, diotso zaindaria.

Gorritu da Urkola, eta irten ez zaion zerbait esatera ahalegindu da.

Ez dut zuen hizkuntza ulertzen, baina esanen nuke literatura dela zure kaier horiek muturrez mutur betetzen dituen. zuen espioi-lanaren txostenak ez badira, behintzat. Zaindaria azken hitzek isiltasun astun bat eragin dute bahituengan. Mututu dira, bat-batean, solasak. horregatik, eztanda gorgarria izan da haietaz zaindaria irri-karkaila, gela osoa bete duen parte txarreko harrabotsa.

Jakina ezetz, Urkolak agudo. Literatura hutsa da.

Nobela bat?

Lasaitu ederra hartu dute, zaindaria galderak aditzerakoan. Adarra jo die, ziur daude. Trufa egin die. Droga gorabehera, nagusia berak jarraitzen duela izaten oroitarazi nahi izan die, agian.

Bai eta ez, erantzun Urkolak. Badu nobelatik, baina badu beste zenbait generotarik ere dezente. *Collage* moduko bat da, nolabait adierazteko, zati arras ezberdinez osaturiko testua. Dena ardatz bakar baten inguruan bildua.

Interesgarria, ausartu da Gérin, ironia silaba bakoitzean nabarmen.

Oso interesgarria, gehitu du Thompsonnek, era berean. Zein ardatz?

Harrigarria zaio zaindaria interesari. hori dela-eta, tartea hartu du mintzatu aitzin: Guztiaren akabera, guztiaren deuseztatzea, mundu honetako hondamendi txiki eta handiak, mota askotarikoak.

Oraingoan zaindaria da *interesgarria* dioena. Interesgarria. Eta zergatik gai hori eta ez beste bat, edozein?, jakin nahi izan du gero. Hobekien ezagutzen dudana delako. Urteak eman ditut hondamendiz hondamendi. horretan aritu gara hirurok.

Baietz, Gérinek eta Thompsonnek batera, baietz.

Amerikarren txotxongilo aritu zarete zuek. Baina ez dezagun gure gaurko besta txikia honda eta bazter dezagun hori oraingo.

Noski, berriz batera Gérinek eta Thompsonnek.

Haxix puska hartu du berriz Thompsonnek, esan berriaren berme. Jarrai dezala bestak. Jarrai dezala zaindariak solasean. Eta hala egin du, Urkolarengana itzuliz.

Lan eskergea, zeure buruari ipini diozuna. Ulertzekoa da kaier horiek letra ñimiñoz arras beterik izatea. Hala da, onartu dio Urkolak. Lan gaitza da, alimalekoa. Kaier horietan dagoena, gainera, ez da Euskal herrian gordeta dudanaren ehuneko hamarra ere. Pentsa. Dozenaka kaier, milaka orrialde. Bizitza oso bateko lana. Dena alferrik.

Et, et, et, Urkolaren begi parean astindu du zaindariak Thompsonnek pizteko pasatu dion txirria. zuk piztuko duzu, diotso Urkolari, honek kontsolamendua emanen dizu. Baina, esan, nola bururatu zaizu testuak molde horretan antolatzea? zein izan duzu eredu, Danteren *Divina Comedia* akaso?

Oi Dante, asaldatu itxura egin dute Gérinek eta Thompsonnek. Dante Alighieri. harrapa ezak!

Joyce?

Joyce!

Mutu dago Urkola, pentsakor eta laguneren pitokeriei sorgor. Ezin dizut esan, hasi da azkenean, poliki joan zitzaidan bururatzen, denboraren poderioz. Egia esan, zuk aipatutako liburu hori ez dut irakurri.

Joyce?

Joyce! lagunek.

Ez, Dante. Joyce irakurri nuen, aspaldi.

Ulysses?

Ez, *Dubliners*. *Ulysses* irakurtzen ere saiatu izan naiz hainbat aldiz, baina bertan behera utzi behar izan dut beti, asper egina.

Uuu, uuu!, oihera egin diote lagunek, estadio batean balira bezala.

Inori ez diot orain arte aitortu, segitu du Urkolak. Indartsu ekiten nion, gogotsu; alferrik, ordea, ezin inolaz ere bukatu.

Eta ez zara beldur gauza bera gertatuko zaiola jendeari zure liburukote horrekin?

Inolaz ere ez. Gure espeziari buruzkoa da nirea, gutariko bakoitzari buruzkoa, gizon nahiz emakume, zuri nahiz beltz, hemengo nahiz hango.

Liburu hori aspaldi idatzita dago!

Korana? Bai, noski, liburu hori beste edozein libururen gainean egonen da beti, onartu dio zaindariari segituan Urkolak. Nirea, aldiz, beste mota batekoa da, fikziozkoa.

Fikzioa sekula ez da fikzio hutsa. Jakin beharko zenuke.

Uuu, uuu! Estadioan segitzen dute Gérinek eta Thompsonnek.

Bai, hala da. Baina nireak ere badu asmo argi bat. Ez da-eta alferrik hasten munduaren sorrerarekin batera kasik. historian barrena eta, beraz, munduan barrena ere egiten dut hortik aurrera, ezinbestean. Salgado argazkilaria ezagutzen duzu?

Uuu, uuu!

Seguru haren argazkiak ikusi dituzula, behin baino gehiagotan, gainera.

Salgado handia, txalo egin du argazkilari ere den Thompsonnek. Sebastiao Salgado, argazkilarien jainkoa!

Ilundu egin da zaindariaren begitartea. horrezaz Urkola ohartu eta zerbait esatera saiatu da. hots lodi zenbait baizik ez da haren ahotik irten. Mintzatu nahi eta ezin, azken batean, berak ere irrigarri baiteritzo zaindariaren bat-bateko asaldatzeari, hala nola gainerako guztiari ere, noski: laurok osaturiko lagunarte bitxia, solasa...

Irriz ez lehertzeko Urkola hamaika ahaleginetan ari den bitartean, berean jarraitzen du Thompsonnek: zuen jainkoak kondenatuko nau, baina Salgadok jakinen du nire bekatu ugariak barkatzen, jakinen duenez.

Ba al dago jainkoren bat alkoholikoontzat? Gérineren galdera xaloa gehiegi izan da zaindariarentzat. Tutik esan gabe jaiki, atea ireki eta hura gogor joz egin du alde, isiltasun larri bat bere giblean utzirik, danbatekoaren oihartzuna erabat itzali den arte iraun duena. Elkarri begira geratu dira hirurak orduan, oraindik mutu. Irri karkailak ondoren etorri dira.

Intelektual gaitza gure Peter!

Sekulakoa!

Izugarria! Horretan bat datoz hirurak. Urkolak zaindariarekin nola jokatu duen ebaztean, aldiz, iritzi ezberdinekoak dira. Irri egiteari inoiz utzi gabe, purrustadaka hasi zaizkio beste biak. Traidoretzat jo dute.

Baita zuek ere, bihurritu zaie euskalduna. Ez naiz ni izan eskuzabala eta ona esan diona. Ez horixe!

Gure aldera erakartzera entseatu nauk, dio Thompsonnek, halako enpatia sortaraztera. Baina orduan hi literatura eta gainerako zozokeria horiekin tematu haiz. Hura izan duk, ez ni.

Hik esan diok euskalduna haizela, Gérinek.

Hala nauk eta.

Bai, baina... Zuek bezala, hura gure aldera erakartzen saiatu nauk neu ere.

Ona, alu hori, ona, lepotik heldu dio Thompsonnek. Irriz ari da Gérin; baita, pixka bat geroago, Urkola bera ere. Irri eta mirri jarraitu dute, beraz, luzaz eta gogoz, harik eta pixkanaka betazalak astundu, noizbait loak hartu eta dena isiltasun bilakatu den arte gela, basamortu, mundu hartan.

Atearen karrankak iratzarri ditu. Begiak ozta ireki dituztelarik, ahoa lehor eta burua astun nabaritu dituzte. Bestondo gogorra. Kafea omen den goizeroko ur uher hari behingoz muzin egin eta, hitzik trukatu gabe, bazterreko pertzera banan-banan hurreratu eta burua sartu dute bertan, urak ajea arinduko dielakoan. Ikuzirik, beren onera itzultzen hasi dira, emeki. Lehenik eta behin, gosariarekin Peter-Abdala agertu ez izanaz harritu dira.

Gu bezain izorratuta egonen duk, erabaki dute, beste arrazoirik aurkitu ezinik.

Goiza oso poliki joan da. Gero, eguerdia heldu eta bazkaria ekarri dietelarik, berriz harritu dira, Peterren partez, goizeko zaindari bera azaldu denean.

Abdala? Zaindari berriak ulertu ez dioten zerbait esan die arabieraz.

Elkarri begiratu diote. harridura ez ezik, kezka ere ageri da beren begitarteetan. Orain arte izan duten solaskide bakarra galdu dute, antza.

Zigortu egingen zitean, ausartu da Gérin.

Zigortu? zer dela-eta zigortu?

Bart arratseko bestatxoagatik, noski.

Ezetz, Thompsonnek, seguru beste nonbaitera eraman dutela, honezkero ez baitute gurekin komunikatzeko beharrik. Gure gisako beste gizajo batzuk atzemanen zitiztean eta haiengana igorriko zitean.

Litekeena, onartu diote lagunek, kopetilun. Edonor da gauza gu akabatzeko, seguru.

Seguru, ordea, ez da ezer, eta, atea atzera ireki delarik, ahoa bete hortz geratu dira Peter ikusterakoan. Serio dago, betiko gisan, bart gauekoa haien ametsetan baizik gertatu izan ez balitz bezala. Mutu, jarraitzeko keinua egin dio Thompsoni. zurbildu da ingelesa, baina zaindariaren gibeletik segitu du otzan, lagunei begiratu gabe, ahapetik kantari: No future, no future...

Dardarka geratu dira Gérin eta Urkola, zaindariak atea irekitzean sarturiko haize izotz batek jota bezala. Fini, dio Gérinek.

Gureak egin dik, ados Urkola.

Saia gaitezen duinki hiltzen, behintzat, gaineratu du Gérinek. Ez dugu-eta beste zereginik.

Horregatik, ordu erdi bat geroago, Peter, Abdala edo dena delakoa berriz agertu delarik, Urkola tinko besarkatu eta, besterik gabe, harekin doa Gérin, zangoetako dardarari eusteko ahalegin nabarmenez.

Bakarrik geratu da Urkola, beraz, begirada pareta zikinari josirik. hurrengo bera izanen da.

Hamaika aldiz irudikatu du bere heriotza, sarraskiz sarraski eta hondamendiz hondamendi iraganiko bere mundualdi ziztrinean. hala ere, nola irudikatu hesteak korapilatzen dizkion izu alimaleko hau, damuaren harrak zulatu dion putzu beltz kirastua, hainbat oroimen zornaturen biltoki. horiek denak ahanzteko diotso bere buruari haserre, ahanzteko bera zinez sekula maitatu ez zuen emakume harekin emaniko une gozo bakanak, ahanzteko kontsolamendu eskasa eta buruhauste ugari eragin dion liburu asmo zoroa nahiz Thompsonnek (goian bego) bezperan literatura eta gainerako zozokeria horiek deitu zituenak.

Atea ireki da, halako batean, amesgaizto batean bezala. zaindaria keinurik edo hitzik egin aitzin jaiki da.

Euskaldunak gogorak zarete, diotso hark. Ez duzue ingeles kakati horien antzik. Badakizue hiltzen eta, beraz, bizitzen ere badakizue.

Deus aditu izan ez balu bezala, isilik jarraitu du Urkolak, kamera ezarri duten tokiraino. Laranja koloreko lan-jantzi bat eman diote, amerikanoek Guantanamoko presoek jantziarazirikoen tankerakoa. Itxura horrekin ezarri dute kameraren parean. Bere gibelean Peter zaindaria du, ezkerreko eskua bere sorbaldan eta eskuinekoan altzairuzko aizto beltz bat daukala.

Bi berri ditut zuretzat, euskaldun: txarra bata eta ona bestea. zein nahiago duzu lehenengo?

Urkolak ez dio erantzun. Ezin du.

Txarra emanen dizut, ba, aurrena: hiltzera zoaz. Jakin nahi al duzu ona?

Ez du jakin nahi, baina ezin esan, ezin erantzun, ezin ezer egin, aski lan baitu bere hanken jabe jarraitzeko eta bertan behera ziplo ez erortzeko.

Ona da euskaldunak ez zaretela trebeak musika egiten edo futboleak soilik, esan dio belarrira. Armak egiten ere oso txukunak zarete, laster zintzurra egingen dizun nire aizto zorrotz hau adibide. Aitor Jungle King II. zure izen berekoa, konturatzen al zara? zure herrian eginga. Ala jakintsua da. Al-lahu-àkbar! oihera egin du gero.

Horra Aitor Urkolak aditu duen azkena.

LORIA OMEN ZION HALABEHARRAK GORDEA

TALDE bat osatu izan dugu beti, baita elkarrengandik urrun egon garenean ere. Benetako talde bat. Hiru mosketeroak. Hala esan ohi ziguten Bartzelonan. Banaezinak ginen. Jatorri ezberdinekoak izanagatik, La Masiara urte berean heldu eta hasieratik ibili ginen elkarrekin. Horrelaxe ibili ere, Barçaren gazte eta behe taldeetan gora egin genuen urtez urteko bidaian lehen talderaino. Ia mutiko batzuk ginela familia utzi eta hara joan ginen, hurrengo Romario, Ronaldo edo Rivaldo bilakatzea amets. Sol Mexikotik heldu zen, Bartzelona ondoko Sabadelletik Quim, eta Iruñetik neu. Gure jatorriak bezain ezberdinak ziren gure jokatzeko erak ere. Quim erdilaria zen, txiki samarra eta pilotarekin iaioa. Sol, aldiz, hegaleko jokalaria zen, eskuinean jokatzera ohiturik zegoen, baina, bi zangoekin ederki moldatzen zenez, beste aldean ere joka zezakeen. Nik gibelaldean jokatzen nuen, defentsaren erdian. Elkar ezagutu eta agudo ohartu ginen Sol eta biok Quim zela gutariko hoberena.

Begi-bistan zegoen. Pilota bereganatu eta nekez galtzen zuen. Burua une batez altxatzea aski zuen, hobekien kokaturiko kidea ikusi eta pilota haren oinetara igortzeko. Horregatik joan zen beti gure aitzinetik. Gutariko lehena izan zen Barça B-ra heltzen, baita ondoren lehen taldera ere, Van Gaal entrenatzaile egon zen azken urtean. Partida gutxi jokatu zuen orduan, baina guztietan utzi zuen agerian bere kalitatea. Luzaz txalotu zuen jendeak zelaitik irtetean, eta, egunkariak haren gainean erranak sinestera, *crack* bat izanen zen laster. Horretan geunden gu ere. Eredutzat genuen. Harekin jokatu nahi genuen, talde berean, eta, horretarako, bagenekien hark adina lan egitea genuela bide bakarra. Hark beste lan egin eta hura bezain egoskorrak izan. Gogotik ahalegindu ginen.

Sol eta biok lehen taldera heldu ginelarik, beste holandar bat zen Barçaren entrenatzaile: urte gutxi batzuk lehenago arte futbolari handia izaniko Frank Rijkaard. Jokalari anitz zituen min hartuta eta gu ezarri behar izan gintuen haien ordezkio. Denboraldiaren erdian sartu gintuzten taldean, eta minutu gutxi jokatu genuen, egia esanda. Berdin zigun. Amets gozo batean bizi ginen, esne mamitan: Kluivert eta Saviola eta, batez ere, Ronaldinhorekin batera ari ginen hiru lagunok, aldagela eta zelai berean, eta bidaiak ere haiekin egiten genituen. Sinesteak ere lanak ematen zizkigun. Gorritu egiten ginen izar horietako batek zer edo zer esaten

32 zigun aldiro. Gorritu eta harrotu, noski. Partida jokatu eta biharamuneko egunkariak erosten genituen, haiek gutaz zer erranen. Bost minutu jokatuta ere, goitik beheiti miatzen genituen, gutariko bat aipatzen zuten albiste edo artikulua bereiziz. Jakina, horietan Quim zen aipatuena, baina Sol eta biontzat ere izan zen noizbait hitz gozorik. Ezin omen zitzaigun gehiegi eskatu. Ikasten ari omen ginen, baina bikaina omen zen gure geroa.

Oker zeuden hain etorkizun zoragarria iragarri zigutenak. Hala ere, ezin kexa. Hirurok alde egin behar izan genuen Bartzelonatik hurrengo denboraldirako, baina Camp Nou jokatu genituen

partida gutxi haiek aski izan ziren, nonbait, futbolari lanbidean egonkortzeko. Holandatik hots egin ziguten. Van Gaal Amsterdameko Ajaxera joan zen Bartzelonatik eta, futbolari gazte eta merkeak behar zituenez, gutaz oroitu. Quimez bereziki, noski. Ajaxera eraman zuen. Solek eta biok, aldiz, AZ Alkmaar-en bukatu genuen. Mikatza izan zen hirurontzat gu saltzeko Barçaren erabakia. La Masian heziak ginen hirurok, eta bertan jokatu nahi genuen, beste edozeren gainetik. Hala ere, ulertu genuen klubaren erabakia. Behar baino jokalaria gehiago zuten eta hoberenak beste inor ez zuten gorde nahi. Argi adierazi ziguten. Sol, erraterako, Monacotik ekarri berria zuten Giullyren ordezkoa izatera hel zitekeen gehienez, baina Lionel Messi zuen atzean, hau da, Masia osoko jokalaririk hoberena. Quimen egoera ere antzekoa zen. Besteak beste, Xavi eta Iniesta zituen bere aitzinean. Niretzat ere haientzat bezain latza edo are latzago zegoen kontua, Pujol eta Oleguer han egonda.

Holanda txikia da, motza Alkmaarretik Amsterdamerainoko tartea. Entrenamenduak goizez egin ohi zituzten bi taldeek, eta Amsterdamera joaten ginen arratsalde anitzetan. Quimekin bildu eta zinemara joaten ginen, hirian barrena galtzera edo haren etxean geratzen ginen bestela, Play-Stationa berotzen. Gure arteko txapelketa koskorrak antolatu eta, hirurok Barçarekin jokatu nahi genuenez, txandaka hartu behar izaten genuen. Benetako munduan ez bezala, alegiazko hartan Sol eta biok ginen jokalaririk hoberenak, ez Quim. Adarra jotzen genion hori zela eta. Hura ere adarjotzailea izan eta irri egiten zigun, AZ Alkmaarek sailkapenean zuen leku kaxkarra solasera ekarriz. Sailkapena gorabehera, ederki pasatu genituen gure egonaldiaren lehen hilabeteak. Guztiok ari ginen jokatzeko, eta gustura bizi ginen Holandan.

Sailkapena gupidagabea da, ordea. Hark zehaztu zuen gure ibilbidea. Asteak igaro ahala, goitik beheiti etorri zen AZ Alkmaar, Ajaxek sailkapenaren buru-buruan jarraitzen zuelarik. Zaleek entrenatzailea hartu zuten erruduntzat. Entrenatzaileak, aldiz, jokalaria. Hor hasi zen gure gainbehera. Pixkanaka, joko-zelaian baino gehiago, aulkian elkartzen ginen Sol eta biok partida gehienetan. Galdurik genuen entrenatzailearen konfiantza, eta ez zirudien berreskuratzeko aukera emanen zigunik. Ikusi ere ez gintuen egiten. Gorroto genuen. Ez genuela behar beste egin onartzeko prest ginen, baina ongi genekien taldekideak baino gutxiago ez ginela

34 saiatu. Horretan behintzat ez genion inori huts egin. Ziurtasun horrek amorrarazten gintuen gehien, partidaren bezperan batik bat, biharamunean jokatzeko zirenen izenak irakurritakoan. Nola ulertu entrenatzailearen ezinikusia? Maiz mintzatu ginen horren gainean hirurok. Hain min gaitza eragiten zigun galderari ezin Sol eta biok erantzun sinesgarriarik aurkitu. Etsiturik ginen.

Borrokan segitzeko esaten zigun Quimek, denak hobera egiten zuela laster. Baietz guk, bakean utz gintzan, ez jakin-eta zertaz ari zen zehazki. Zein borroka zen haren ahoa betetzen zuena? Gutaz trufatzen ari zela pentsatuko genukeen, gure hobe beharrez ari zela jakin ez bagenu. Aspaldi amore emanda geunden, baina. Ohetik jaiki eta, euri nahiz eguzki, entrenatzera joate hutsa ere ahalegin aski handia zen gu biontzat. Beharrik Quimi guri baino hobeki zihoakion. Erdiguneko enperadorea hasi zitzaizkion kirol-prentsan deitzen. Gol anitz sartzen ez bazuen ere, hobe zina omen zen taldearen joko antolatzen eta zuzentzen. Barçan ozta antzematen

zitzaion talentuak goia jo omen zuen Ajaxen. Luze gabe, Eredivisie utzi eta hurrengo denboraldian Premier Leaguen jokatu zuela hasi ginen irakurtzen. Egunero sartzen ginen Sport egunkariko orrialdean interneten, Barçaren martxari jarraitzeko, eta bertan aipatu zuten Ingalaterratik ailegatu omen zitzaizen zurrumurrua. Quimi berari galdetu genion. Ez zekien ezer. Apiril hasierako egun batez, aldiz, Ferran Bonetek deitu eta baieztatu egin zizkion ordura arte Ingalaterrako prentsa horiko hotsak baizik ez zirenak.

Hirurok ordezkari genuen Ferran Bonetek Bartzelonatik telefonoz kontatu zionaren arabera, bera kontratatzeko asmo sendoa agertu omen zion Londresko Arsenalak. Quim pozez gainezka zegoen noski, entzute handiko kluba baitzen Arsene Wenger altsaziarrak zuzendurikoa. Dirutza eskaintzen zioten taldez aldatzeko. Berehala eman zien baiezkua. Ajax eta Arsenal salmentan ados jarritz gero, Quim prest zegoen ligaz eta herrialdez aldatzeko. Ferran Bonetek esan ohi zuenez, trena behin baizik ez da pasatzen eta hartu beharra dago.

Adiskidearen arrakastak benetan poztu gintuen. Gure arrakasta iruditzen zitzaigun nolabait, besteak beste gure laguntzari esker lorturiko zerbait. Gu baztertzean Barçak eginiko hanka-sartzea salatzeraz zetorren zerbait. Gutxienez hirurotako batekin ez zutela batere asmatu argi uzten zuen zerbait, azken finean. Justizia poetikoa edo.

ASKI urrundik jarraitu genion Quimen ibilbideari. Elkarri hots egin eta mezuak igortzen bagenizkion ere, ez zen hirurok Holandan bizi eta ia egunero biltzen ginenean bezala. Ingalaterran hasiera gogorra izan zuela bagenekien, espero baino minutu gutxiago eman zizkietela. Bonetek kontatuta genekien hori, Quimen ahotik ez baitzen inoiz kexurik irten, gure egoera berea baino hagitzez makurragoa zelako, ziurrenik.

Ez zaituztete nahi, erran zigun Bonetek. AZ Alkmaarrek ez zaituzte nahi. Eskertzekoa zen klubaren argitasuna. Beste norabait joan beharko omen genuen, hurrengo denboraldirako.

Beste norabait. Nora ordea?

Nabartu egin ziren Ferran Boneten begi urdinak. Alkmaarren ginen hirurok, eta, zer erantzun pentsatzen ari zelarik, kez bete zigun egongela txikia. Ikusiko, goiz da oraindik, erran zigun azkenean, pipa ahotik urrunduta. Ondoren, afaltzera eramán gintuen.

Erruz jan eta edan genuen gau hartan. Biharamuneko entrenamenduan jabetu ginen osoki. Goiz hartakoa bestondo latza izanagatik, ez zen, egia erran, lehendabizikoa. Interneten ibiltzeaz, Playn jarduteaz eta gure zorigaitza aipatzeaz noizbait nardatu eta garagardoak edaten hasi ginen, batere konprenitzen ez genuen telebistari beha. Marrazki bizidunak, albistegiak, lehiaketak, telesail eta filmak, orotarik iragan ohi zen gure begi aitzinetik, arrastorik txikiena ere utzi gabe gudan. Orduak ematen genituen hala. Sukaldeko hozkailura joateko baizik ez ginen egongelako sofatik jaikitzen. Botilak hustu ahala, geu ere arranguraz hustu eta leku abegikorragoa bilakatu ohi zitzaigun mundua. Irri egin genezakeen berriz ere, esperantza apur

bat ukan. Egunen batean –halakoetan hurbil sentitu ohi genuen egunen batean– gure zoria hobetu eta Quimen gibeletik joanen ginen gu ere, ordura arte gertatu ohi zen bezala. Geure burua Premieren ikusi eta Ingalaterraren alde egiten genuen topa, udan han izanen ginela sinetsirik.

Sekula ez genuen Premieren jokatu. Uda heldu eta Eskoziako ligako Aberdeen talde apalera igorri zuten Sol. Gaitz erdi. Nik, aldiz, Alkmaarren segitu nuen, jaulkian beti. Inork ez omen ninduen nahi, eta bertan egonen nintzen bi denboralditarako sinaturiko kontratua bukatu arte. Hura nire urterik txarrena izan zela erranen nuke, ondoren etorri zirenak hura bezain txarrak izan zirela ez baneki. Solentzat ere ahanzteko gisakoa izan zen. Min hartu zuen belaunean denboraldiaren hasieran eta sei hilabete egon zen jokatu gabe. Eta, hondarrean jokatu zuelarik, astirik ez, behar bezalako sasoa hartzeko. Aldi makurra izan zen Sol eta biontzat. Ez, ordea, Quimentzat. Ezin hobekiago ari zen Ingalaterran. Solek kontatzen zizkidan hango egunkari eta telebistetan gure adiskidearen gainean erranikoak. Biok beste inork baino hobeki genekiena baizik ez zuten Ingalaterran baieztatzen, itsu batek ere ikusiko zukeena. Gure erdipurdikeria ere aise ikusiko zukeen moduan. Horregatik, Quimek goiti egiten zuelarik, beheiti egin genuen guk. Dena ari zen etortzen bere onera. Arsenalak kontratua luzatzeko eskaini zion Quimi, eta Espainiako selekzioan jokatzeko deia laster jasoko zuelako hotsak entzuten hasi ziren bazterretan. Hala zioten biok (Aberdeen ilun eta urrun hartako bere txokoa Solek, eta hagitzez argiagoa ez zen nire Alkmaarrekoan neuk) irakurtzen genituen Bartzelonako kirol egunkariak. Gure bakartasunean, garagardo bana eskutan, urrunetik miresten genuen lagunaren ibilbide txundigarria.

Zapart egin du Quimek, zioten egunkariak, agerian utzi du bere talentu mugagabea. Izarra izateko jaioa omen zen, Historian sartzeko gauza. Loria omen zion halabeharrak gordea, kirol egunkarien prosa hanpatuan adierazte aldera. Gutaz ere ez zen halabeharra ahanzi. Gordea ziguna, ordea, ez zen Quimentzat gordeta omen zuena bezain atsegina.

Ferran Bonet: horra halabeharrak guretzat hartu zuen itxura. Hark egin zigun, Bartzelonatik, eskaintza. Barkatzeko erran zigun, baldin eta jakinarazi behar zigunak min egiten bazigun. Ez omen zen bere asmoa, baina kontua hala zegoen, makur. Ongi heziriko gizona zen Bonet, Ingalaterrako unibertsitate batean ikasirikoa eta bazekien proposatzera zihoakigunaren gogorra. Haren erretorika bihurri eta luzea saihesteko, erran dezagun Bartzelonara itzultzea eskaintzen zigula, baina ez Barçara, bigarren mailako Sabadell taldera baizik. Biok batera, hori bai.

Soldata ere, mailaren arabera izanen da noski, argitu zigun hondarrean, argitu beharrean balego bezala.

Luze gabe eman genion baiezkua. Dirua goiti beheiti, jokatu egin nahi genuen. Batez ere hori, jokatu. Elkarrekin jokatzera gindoazen berriz ere Sol eta biok, Quimen sorterriko taldean, gainera. Harro ez, baina kontent itzuli ginen Holanda eta Eskoziatik hainbestetan oroituriko Bartzelonara.

Gracia auzoan aurkitu genuen etxea eta handik joaten ginen Sabadellera entrenatzera eta jokatzera. Gure antzera, taldea ez zen txarra, baina ezta bereziki ona ere (sailkapenaren erdian zegoen, linbo gisako batean). Merezi genuen taldean ginen, beraz, eta ordurako begi-bistakoa zen geuretzat ere. Onartzeko zaila zen, mingarria. Beharrik ia bi denboraldi generamatzan horretan. Ez ginen bakarrak. La Masian ezaguturiko pare bat lagun aurkitu genuen Sabadelleko aldagelan, gure antzeko ibilbidea eginak haiek ere.

Fucking Losers, atera zitzaion Soli, Aberdeengo ahoskeraz, haiekin topo egin genuenean.

Denok ulertu genuen eta irri egin ere, ez genuen-eta beste zereginik. Batzuek goiti eta beste batzuek beheiti egiten zuten etengabe, eta geu beheiti genbiltzan. Gurpila ez zen sekula gelditzen. Horregatik geure buruaz irri egiten ikasi behar genuen, horixe genuen salbabide. Irri egin genuen, hortaz, matrailean min hartzeraino. Sobera arrazoi genuen kontent egoteko. Gehien maite genuena egitearen truke bizi ginen, zer gehiago eska genezakeen?

Anitzetan egin genion galdera hori elkarri, Arsenalen partidei begira. Denok ezin gintezkeen Henry edo Quim bestekoak izan, argi zegoen. Horixe erran genion Quimez galdezka etorri zitzaigun ingeles kazetari bati. Boneten bitartez heldu zitzaigun, mikrofono eta kamerez arduratzen ziren beste bi lagunekin batera. La Masia gibelean genuelarik, hamaika galdera egin ziguten gero eta gutxiago ikusten genuen adiskideaz. Telebista aitzineko gure solasaldi alkoholikoetan hainbatetan axolagabeki aipaturiko zenbait kontu berritu behar izan genuen kameraren parean. Orduan, ordea, ez genuen garagardo bana eskutan, eta Ferran Boneten begirada pean ari ginen hizketan. Ezinbestean erne eta adi geundenez, aski agudo jabetu ginen kazetariak zer zerabilen bere artean. Sol lehena, jakina. Boneten itzulpenaren zain egon gabe, galderak berehala konprenitzen zituenez, gutxi behar izan zuen britainiar kazetariaren asmoa igartzeko. Futbolaren irabazleak eta galtzaileak aurkeztu nahi zituen, heroia eta haren zorigaiztoko lagunak. Istant batez elkarri behatu eta, hitzik gabe, haien jokoa onartzea adostu genuen.

Fucking Losers!

Handia, oso handia zen Quim, eta horixe erran genion kazetariari, benetan uste genuena ez besterik. Batzuetan, gure lagun minaz ari ginela ahantzi eta mito batez solastatzen ginen, gure egongelako lasaitasunean ere. Hark Londrestik hots egiten zigunean, ordea, berehala ahantzarazten zigun kazetariak sorturiko pertsonaia, eta betiko lagun xalo eta jatorra irudikatzen genuen guri mintzo. Ingalaterrako hiriburuan zeraman bizimoduaz hitz egiten zigun, han ezaguturiko jendeaz, batik bat neskez. Behar baino gehiago omen zituen eskura. Bagenekien ez zela harrokeria. Eta ez horixe, bisitan joan gintzaizkionean ongi ikusi genuen bezala.

Uztailaren hasieran joan ginen Londresera. Quim Seven Sisters karrikan bizi zen, bere klubaren estadio zaharra egon zen berebanean, hain zuzen ere. Arsenal hurrengo denboraldiaren prestaketan ari zen buru-belarri ordurako. Quimek goiz samar alde egiten zuen etxetik eta arratsaldea arte ez genuen ikusten. Afaltzeko elkartzten ginen hirurok. Etxetik kanpo afaltzen

genuen gehienetan, guretako aski goiz. Quimek indiar jatetxeak maite zituen, eta inguruko hoberenak ezagutzen zituen.

Sasoi betean zegoen, ilusioz gainezka. Arsenalera helduriko jokalarien gainean mintzatzen zitzaigun, haien izaeraren eta ohituren gainean. Wengerren asmoak ere aipatu zizkigun, aste batzuk lehenago harekin izan zuen bileran errandakoak. Ardura eta partida gehiago eman behar omen zizkion. Pozik onartu zuen altsaziarraren erronka, nahiz eta desafioaren handiak zenbaitetan beldurtu –hala aitortu zigun afari haietariko batean. Lasai egon zitekeen, arrakasta izanen zuela agerikoa zen guretzat.

Arsenaleko jokalaria batzuk bildu ohi ziren pubera joaten ginen afaldu eta gero. Heldu eta berehala txunditu gintuen bere ingeles txukunaz, baina ostatu hartan ikusi genuen ezin argiago ez zuela, gugandik urrun, astirik galdu. Aise mugitzen zen han, edozein futbol zelaitan bezain aise. Ostalariak bostekoa eskaintzen zion eta gisa berean jokatzen zuten bezeroetariko anitzek. Barratik bueltan eskuetan zekartzan garagardoei ezaxola, jendeak geldiarazi eta harekin solastatu nahi izaten zuen. Irriz hartzen zituen guztiak, esker onez. Maite zuten, bistan zegoen.

Gu ere ezin hobeki hartu gintuzten. Quim's friends ginen, ez beste turista txepel pare bat. Jendez beterik egoten zen barran eskatzeko tarte bat egin eta, zenbaitetan, gonbidatu ere egiten gintuzten. Gu ere crack, izar sentiarazi gintuzten aldi labur batez, Sabadellen egon ordez, artean ere Barçan bageunde bezala. Ez geunden ordea. Baina hartaz ez genuen pentsatu nahi, ez oporretan ginen bitartean behintzat, ez Quimekin ginen bitartean. Ongi pasatzeko premian geunden. Emirates Stadium aldean ez bezala, gogorra izanen zen hurrengo denboraldia ere Sabadell aldean.

Ongi pasa genuen, beraz. Hain ongi non, Quim jaiki eta etxera joaten zelarik ere –sobera goiz gure iritziz, biharamunean entrenatzera joan behar zuen eta–, gu hantxe geratzen baikin, nekez ulertzen genuen hizkuntza batez mintzo zitzaigun hainbat lagunekin solasean.

Aluak!

Hala erraten zigun Quimek, afaltzera joan beharrean, gu biok egun osoa ohean igaro eta gero, benetan gosaltzera gindoazela jabetzen zelarik. Gutaz trufatzeagatik erraten zizkigun halakoak, kontent bera ere gu kontent ginelako.

Ea zer kontatzen duzuen nitaz Sabadellen, gero. Neuk ere badut zuetaz kontatzeko franko, ohartarazten zigun, adar joka.

Gu oporretan gaituk, protesta egiten genion.

Bai horixe. Eta hala jarraituko duzue, nik zuen berri Sabadellen zabaldu ondoren.

Gazteak gaituk. Parranda egitekotan orain, ez berrogeita hamar urterekin, ezta?

Parrandazale bezain zurrutero galantak zarete bi-biak!

Zuzen zen Quim, artean ohartzen ez baginen ere. Hori dena ginen, bai, eta hirurok uste baino areago, gainera.

Guztira hamar egun egon ginen Quimenean. Denboraren iragaiteak eta alkoholaren lurrinek lausotuak ageri arren oroimenean, hirurok batera zoriontsu izan gineneko azken egunak izan ziren, eta haietara itzultzen da behin eta berriz gure memoria, gerora gertaturikoaren hazia hor balego bezala. Ez dago, ordea, sekula ez da egon.

Halabeharraren eskuetan gaituk, bat gatoz Sol eta biok, egongelako sofan jarrita, beste botila bana zabaltzean. Halabeharra, patua, horrela erraten diogu, hoberik ezean, definitu ezin duguna adierazteko kirol egunkariak erabiliriko hitz berberak erabiliz. Halabeharra, Jainkoa edo, zentzurik gabe itxuraz, batetik bestera garamatzen esku itsua izendatzeko balia daitekeen beste edozein hitz.

HURRENGO denboraldia aurrekoa bukatu zen gisa bertsuan hasi zen guretzat. Wengerrek agindu bezala, Quimek partida gehienak osorik jokatzen zituen Arsenalekin. Guk biok ere bai, Sabadellekin ordea. Hala ere, pozik ginen hirurok. Ezin argiagoak ziren hala egoteko Quimen arrazoiak; ez hainbeste, beharbada, gureak. Beti bezala, lagunaren arrakastak pozten gintuen, baina, horrez gain, geure heineko arrakasta txikiak ere leuntzen zigun bizimodua. Handik aitzina gure bidea, ezinbestean, beheitikoa izanen zela onartzeak lasaitasun handia eman zigun. Horretan zetzan, hain justuki, gure arrakasta koskorra.

Garai batean batera igo gintuan hirurok, erran zidan behin Solek. Barçatik irten ginenetik, aldiz, bereizten hasi gintuan, Quim goiti eta gu biok beheiti, beti beheiti.

Ageriko etsipenik gabe erran zuen, egunak gaua dakarrela edo horren begi-bistako beste zerbaite erran izan balu bezala. Halaber, futboletik kanpo bizitza bazegoela jabetzea lasaigarria izan zen guretzat. Edo, hobeki errateko, pilota baten gibeletik korrika ibili gabe. Aski genuen ingurura begiratzea horretaz ohartzeko. Bai, gu adimenduz aski motzak izan eta luze jo zigun aldamenen genuenari erreparatzeak. Ferran Boneti, adibidez.

Egun osoz pipatu eta telefonoz noizbehinka mintzatu, horra hark zer egiten zuen, crack batek adina diru irabazteko. Aitak utziriko negozioa kudeatu besterik ez zuen egiten futbolaz tutik ez zekien Bonetek. Gero eta gutxiagotan ikusten genuen, batzuetan telefonoz hots egin eta dena ongi zihoala ziurtatu nahi izaten omen zuen.

Soldata hilero jaso eta, hortaz, kontent ginela erraten genion.

Zuek segi lanean. Ez dago inoiz jakiterik. Egun batean Quim bezain izar dirdiratsuak izatera ailegatzen ahal zarete.

Jo eta bertan akabatuko genukeen, hori erraten zigunean. Arestian argi utzi dudanez, ergeltzat jotzen gintuela iruditzen zitzaigun. Hitz egin zezala Quimen gainean nahi bezain luze; goraipa zezala, baina gu horrenbeste gutxietsi gabe, behintzat.

Selekziorako deitu dute, kontatzen zigun, egunero Sport irakurriko ez bagenu bezala. Premiereko hileko jokalaririk hobereana izendatu dute. Nikeren iragarki baterako nahi dute, Thierry Henryrekin batera...

Nardatu egiten gintuen. Zertarako hots egiten zigun, zer espero zuen gugandik?

Motibatu egin nahi gaitu, agian, bururatu zitzaigun, baina guk ere ez genuen hori sinesten. Bonetek ezagutzen gintuen eta bazekien gurekin egin beharreko sosak aspaldi samarrean eginak zituela. Zena zelarik ere haren deien zioa, bost axola guri. Sabadell gaizki zihoan, batez ere ekonomikoki, eta gure soldatak handienetarikoak izanik talde osoan, ez genuen uste hurrengo denboraldian han jarraituko genuenik. Patal ari ginen jokatzeko, zertarako uka, eta inork ez du alferrik ordaindu nahi izaten. Hortaz, handik irtendakoan zer egin? Maila bat behetitu eta bigarren B-n, Sabadell baino are apalagoa zen beste talde batean jokatu? Gaizki ginen, baina ez horrelakorik onartzeko bezain gaizki. Aspaldi harrokeriarik gabe bizi baginen ere, artean harrotasun izpi bat geratu eta, aukeran, nahiago genuen beste zer edo zertan aritu. Gure etorkizuneko jarduna zein izan zitekeen hausnartzen hasiak ginelarik, aldiz, Quimena gertatu eta horrek nahastu zuen guztia.

RICHARD Murrayk eta Quimek oso gogorki jo zuten elkarren kontra, gainera zetorkien pilotaren bila ia batera jauzi egitean. Bien buruek talka egin eta atera zuten hotsa hain izan zen nabarmena, non guk ere, Bartzelonan, aditu baikenuen, telebistari esker mundu erdiak aditu zuen bezala. Curling Cupeko partida batean gertatu zen, Leedsen, eta ikaratu egin ginen, biak zelaian luze etzanda ikusi genituenean. Bertako taldearen defentsa zen Richard Murray eta guretzat bezain ezezaguna Quimentzat ere, Leeds Utd. ez baitzen Premiereko taldea. Partida bigarren zatiaren hasieran zegoen istripu zorigaiztokoa gertatu zenean. Haien zelaira itzuli ez eta haien ordezkioak irten zirelarik, kontu larria zela konprenitu genuen. Telebistakoek baieztatu zizkiguten susmo txarrak handik hamar minutura: ospitalera eraman zituzten.

Interneten sartu eta gertatutakoaren berri jasotzera saiatu ginen. Anitz ziren horren gaineko albisteak, baina gehienek zelaian ikusitakoa aipatzen zuten soilik. Dardarka ginen. Boneti hots egin genion. Hark ere ezer gutxi zekien. Zerbait jakinez gero erranen zigula aginduarazi genion deia bukatu aitzin. Behingoz ez zuen bere hitza jan eta haren mezua jaso genuen handik ordubetera. Quim hobeki omen zegoen. Konortea berreskuratu omen zuen bederen. Leeds Unitedeko defentsak ez.

Hori besterik ez genekielarik oheratu ginen. Gosaltzera eseri ginenerako, aldiz, dena argi zegoen: Quim hobera egiten ari zen bitartean, Richard Murray zorigaiztokoa gorpu zetzan Londres iparraldeko ospitale batean.

Ba al daki Quimek?

Ezetz erantzun zigun Bonetek, ez ziotela erran nahi izan, goizegi zela.

Bi egun geroago erran behar izan zioten, beste jokalariaen egoeraz galdezka ari zen eta. Lur jota geratu omen zen, albiste lazgarria entzun eta gero. Negarrari lotu eta ordutan egon zen hala, harik eta iluntzean lasaigarri bat eman zioten arte. Lotan utzi omen zuen Bonetek.

Aurkitu zuen lehen hegazkinean sartu zen Ferran Bonet, Londresera lehenbailehen heltzeko. Handik hots egiten zigun gauero.

Astebetetz izan zen ospitalean Quim. Lehenago ere igor zezaketen etxera, harturiko burukadak, gogorra izanagatik, ez baitzion deus apurtu edo odol-jariorik eragin. Hala adierazi zuten egin zizkioten azterketa ugariak. Osasunez ongi zegoen, antza. Hala ere, mutualdi eta negarraldi luzeek agerian uzten zuten makinek nekez antzeman dezaketen oinaze gorria. Horregatik ez zuten etxera joatera utzi, horretarako eskaria egin zienean. Froga osagarri zenbait aitzakia, beste egun batzuk ukan nahi izan zuten begipean.

Bonet bat zetorren sendagileen erabakiarekin. Richard Murrayren heriotza deitoragarriak eta haren ingurukoek (hildakoaren senide, lagun eta kideen adierazpenak; autopsiaren emaitzak; hileta elizkizunak, eta abar) oihartzun gaitza izan zuten Ingalaterrako komunikabideetan eta, beraz, zurrumbilo horretatik ahalik eta urrunen egotea komeni zitzaion gure Quimi.

Gu, bitartean, amorraturik geunden Bartzelonan, Quim ikustera joan ezinik. Richard Murrayren heriotzak ez baldin bazuen Ingalaterrako Premiera geldiarazi, are eta gutxiago Espainiako bigarren maila eta, hortaz, Sabadellen egon behar genuen ia egunero, txapelketaren bukaera arte.

Londresera joan beharrean gu, Quim etorri zen Sabadellera. Arsenalekoen ideia izan zen, sendagileek gomendaturik. Lasaitasuna behar omen zuen beste ezeren gainetik, eta non etxean baino hobeki. Hots egin genion, bisitatzera azaldu aitzin. Amak telefonoa hartu eta oraindik itxaroteko eskatu zigun, semea aski urduri sumatzen zuen eta. Bere kontu utzi behar omen genuen. Deituko gintuen, semea gurekin egoteko gisan izan orduko. Ados ginen noski, eta hala adierazi genion.

Bonet, ordea, haserre zegoen lagunaren senideekin, amarekin batik bat. Begirunerik ez ziotela kontatu zigun, alferrik zela semearen ordezkaria zela gogoraraztea.

Poztu egin ginen. Bonet Quimen ordezkari legala zen, baina gu haren lagun minak ginen, gero. Gure iritzien berri jakin gabe ere, Quimen gurasoek Bonet baino gehiago maite eta guri hots egin ziguten lehen-lehenik, hura ongi samar zegoela ikusitakoan. Hala erran zigun Quimen amak: Zatozte, pitin bat hobeki dago honezkero.

Beharbada hala zen, beharbada hagitzez okerrago egonen zen aurreko asteetan, baina guk behintzat gaizki ikusi genuen. Quimen amak egongelara pasarazi eta haren bila joan zen. Nekez

ezagutu genuen, amaren gibeletik agertu zelarik. Amak berehala alde egin eta bakarrik utzi gintuen hirurok. Elkarri beha geratu ginen. Quim zurbil-zurbil zegoen, oso argala, eta betzulo nabarmenak zeuzkan. Horrek denak kezkatu arren, areago kezkatu gintuen begietan sumatu genion tristura mugagabeak. Mutu, zer erran ez genekielarik, elkar besarkatu genuen. Besarkada trinko hartan bilduak, talde baten partaide ikusi zuen gutariko bakoitzak bere burua. Garai bateko hiru mosketeroak ginen berriz ere. Eta, berriz ere indartsu sentituz, ataka gaitz hartatik onik irteten jakinen genuela ziur izan ginen.

la egunero bildu ginen handik aitzina. Entrenamendua burutu eta Quimen etxera joaten ginen, hura ez baitzen artean karrikatuzera ausartzen. Jendearen beldur zen nonbait, eta nahiago zuen gurasoen etxeko lasaitasuna, Sabadelleko jendearen aupada eta animo zintzoak baino. Bihotz ematera ahalegintzen ginen gu ere, baina gure ahalegina haren herrikideena bezain alferrikakoa zen. Quim lur jota zegoen, eta ez zirudien inork laguntzen ahal zuenik. Nahiz eta sekula aitortu ez, kostata atera genizkion hitz bakanak aski izan ziren buruan etengabeki zerabilena jakiteko, Richard Murrayren izena inoiz aipatu gabe ere.

Bere esker ona erakusten zigun Quimen familiak, horretarako parada zuten bakoitzean. Arras estimatzen ziguten Quimi eskainitako arreta, batez ere Boneten ezaxola ikusita.

Ez naiz gobernuz kanpoko erakunde bat, erran zigun Bonetek, Quimi ez ote zion kasu handiagoa eskaini behar galdetu geniolarik. Haserre erran zigun, zertaz ari ginen benetan ez baleki bezala.

Udan arrunt aldatu zen dena, batez ere niretzat. Solek Sabadellen jarraitu zuen, baina neuk Girona taldera joan behar izan nuen, futbol profesionalean jarraitzekotan. Sabadell baino are talde apalagoa zen Girona orduan, aurrekontu eta liga apalagokoa. Klubarekin lotzen ninduen agiria sinatu eta haren elastiko zuri-gorria argazkirako eskutan hartu nuelarik, banekien hura izanen zela jantziko nuen hondarrekoa, hantxe bukatzen zela nire ibilbidea –nireari horrela deitzerik egonez gero, jakina. Nire antzeko sentipenak zituen Solek ere.

Gureak egin dik, etsi zuen Quimek, gure hausnarketa goibelak adituta.

Amore ez emateko eskatu genion arrenka, nahiz eta guk berdin uste. Quim zetzan zulo beltz sakon ikaragarritik noizbait irten eta zorigaiztoko istripua arte izan zen futbolari aparta berriz izanen zelakoan geunden, egia erran, baina pozik onartu genion iritzia guri zegokigun heinean. Ez genuen beste aukerarik.

Aldaketa horiek guztiak zirela eta, arrunt gutxiago bildu ginen hirurok, denboraldia hasi zenetik. Gironara egunero joan behar nuenez, ezinezkoa zitzaidan ordura arte bezala jarraitzea. Quimek eta Solek maiz ikusten zuten elkar, Solek eta biok bezala, hirurok batera biltzea hagitiz zaila zen, ordea. Quimez nekiena Solen bitartez nekien, hark kontatuta. Makurrak izaten ziren Sabadelletik etorririko albisteak, Quimek goiti eta beheiti handiak omen zituen, eta batzuetan sitsa baino harroago agertuagatik, kaka baino ezdeusagotzat jotzen zuen bere burua beste batzuetan.

Ez al ziotek lasaitzeko zerbait eman? galdetu nion Soli, kontaktzen ari zitzaidana konprentitu nahirik.

Pilula mordoa ematen ziotek. Haren amak erranda zakiat.

Eta?

Horregatik omen ditik goiti eta beheiti gogor horiek. Abaildurik dagoenean pilula irentsi eta harrotu egiten duk. Eta kontrakoa gertatzen zaiok harroturik dabilenetan. Izugarri apaltzen ditek pilula horietariko batzuek.

Hala zen. Quimen itxurak zeharo berretsi zizkidan Solek kontaturikoak. Gabonetan, berriz bisitatu ahal izan nuenean, kostatu zitzaidan ezagutzea. Lodi zegoen, hobeki erran, puzturik, haizea sartu izan baliote bezala soinean eta aurpegian, eta lanak zituen mintzatzeko. Ohartarazita nengoen, baina Solen hitzek nekez prestatzen ahal ninduten hartarako. Oso muturreko sentipenak ernarazi zizkidan Quimen itxurak. Bateko, amorrua sentitu nuen, gure adiskidea egoera hartan ikusita; besteko, errukia, haren alde ezer gutxi egin zitekeela jabeturik.

Sentipen itsusiak ziren gureak. Lagunaren egoera bezain itsusia, bederen. Nahigabeturik, damaturik, ahaleginak egin genituen Quim laguntzeko. Karrikara irten zedila saiatu ginen, mendira eta itsasora eraman genuen, zinemara. Debaldekoak izan ziren gure ahaleginak: Quimek bere munduan segitu zuen.

Susmatu genuen moduan, denboraldi hura izan zen azkena guretzat. Ezin erran egoerak ustekabeen harrapatu gintuenik. Gure hasierako susmoez gain Boneten ohar ugariak genituen, zer zetorkigun jakiteko.

Ez zarete gaztetxo hasi berri batzuk, erraten zigun, denboraldiaren bukaerak ekartzen ahal ziguna aipatzean.

Horrenbeste bagenekien, baina, bizitza erdia pilota astintzen eman ondoren, geroaren beldur ginen. Gure artean horretaz aritzen ginelarik, zer edo zer sortuko zitzaigula erraten genion elkarri, moldatuko ginela nola edo hala. Horretan sinetsirik geunden. Inozo galantak.

Berandu baino lehen espero genuen kolperako ustez prest egon arren, pot eginda utzi gintuen, denboraldia bukatzeko pare bat aste falta zirenean, Bonetek eman zigun albisteak: inon ez gintuzten nahi, ezta liga apalenetan ere. Ez zegoen zereginik, sobera garesti eta ez sobera gazteak omen ginen.

Topa egin dezagun gure bizitza berriaren alde, proposatu zigun Solek.

Hala egin genuen noski, ordurako topa edozeren alde egiten genuen eta. Gure bizitza berria zaharraren luzapena besterik ez zen, ordea. Luzapen makurra, gainera. Entrenamendurik gabe, zurrutean hagitzez lehenago hasi eta hagitzez beranduago oheratzen ginen. Laburrak ziren Bartzelonako gauak guretzat. Ostaturik ostaturik eta diskotekaz diskoteka igarotzen genituen. Jende anitz ezagutzen genuen. Gehienek gu maite eta laguntzat hartzen gintuztela uste

genuen. Hala zen itxuraz. Jadanik futbolariak ez izan arren, Barçan noizbait (eta laburki) jokatu izanak itzal handia ematen zigun haien artean. Fitsik ere ez zekiten futbolaz, baina haientzat bazen zerbait Camp Noutik pasatze hutsa. Jakina, ez genituen beren okerretik atera. Horretan jarrai zezatela, pentsa zezatela inoiz Ronaldinho edo Samuel Eto' o bezainbeste izan ginela, pentsa zezatela nahi zuten guztia. Egia erran, onura besterik ez zekarkigun gure ustezko lagunak. Tragoak ordaintzen zizkiguten. Haiekin komunera joatera gonbidatu eta koka lerro luzeak atontzen zizkiguten. Beren etxe dotoreetan antolaturiko jaietara eramaten gintuzten, portuan zituzten belaontzietara. Kaburik gabeko asteburu batean bizi ginen, inoiz gelditzen ez zen zurrumbilo batek harrapatu. Agudo zihoan gure inguruan oro.

Futbolik gabeko gure bizimoduari ezin hobea iritzita ere, aski urrunarazi gintuen Quimengandik. Lagun min genuen artean ere, baina lehen baino hagitzez gutxiago ikusten genuen. Egunez lo egin eta berandu jaikitzen ginenez eta, gainera, bestondoak eta buruko minez maiz, gogorik ez gehienetan Sabadellera joateko. Hala ere, noizbait gogoak alferkeriari nagusitu eta hara egiten genuen.

Ongi etorriak izaten ginen, beti bezala. Gehienetan, Quimen amak atea ireki eta semearen egoera aipatzen zigun, ahots apalez. Andre aski elizkoia zen eta, guri bezainbeste, Jainkoari zuzentzen zitzaion, semea ahotan hartzen zuelarik. Bere hitzen bermetzat jotzen zuen. Gauzak eskatzen zizkion. Guri, aldiz, ez zigun deus eskatzen, beharbada semeari bezain gutxi eskatzen ahal zitzaigula ohartzen zelako. Nolanahi ere, Quimen bila joaten zen korrika txikian, hara azaltzen ginen bakoitzean.

Quim berdintsu egoten zen. Ematen zizkieten pilulen arabera izaten zuen, aspaldiko goibeltasun astunaren barruan. Baldarturik zegoen, baldarki mintzatu eta baldarki mugitzen zen, zangoetan beruna balu bezala. Tokitan zegoen Emirates Stadium osoak miresten zuen gizon txiki samar baina guztiz dotorea. Bere larru zurizko besaulkian jarrita ikusi, eta Buda koskor baten parean ginela iruditzen zitzaigun, hain zegoen puzturik eta, itxuraz behintzat, orori soraio anitzetan. Hirurok futboletik kanpo baginen ere, artean futbolaz aritzen ginen batik bat. Barçaz batik bat. Benetan maite genuen taldeak. Haren balentriek pizten zuten gehien gure lagun tristeak. Horregatik, Camp Noura gurekin etortzeko erraten genion. Hark baietz, baina etxean geratzen zen, partida telebistaz ikusten. Neskatan gurekin etortzera ere gonbidatzen genuen, alferrik. Bere zokoa nahiago.

Horrela utzi genuen duela hiru egun, Bartzelonara itzuli ginenean. Egun hartan ere nola ikusi genuen jakin nahi izan zuen Quimen amak. Sobera baikorrak izan gabe, esperantza gordetzera lagunduko zuen zerbait erratera ahalegindu ginen. Bistan da ez genuela lortu. Nolanahi ere, hura izan zen bizirik ikusi genuen hondar aldia.

AMETS bat izan zuen Quimek. Kontatu zigunez, aurpegia moztzeko batez ezkutaturik zeraman norbait ametsean agertu eta pistola bat atera zion. Quimek besoak altxatu eta moztzerodunaren aginduei men egin zien behingoan. Zangoak dardarka zeuzkan eta hilik

zekusan bere burua. Era absurdo batez, gainera, pistolaz mehatxatzen zuenak beste batekin nahastu zuela seguru baitzegoen etsai edo aurkaririk sekula izan ez zuen Quim. Horixe adierazi nahi izan zion. Isiltzera behartu zuen mehatxugileak, ordea. Quim urduri zegoen, noski, baina mozorroturiko gizonaren ahotsa hagitz ezaguna zitzaion. Erne, oroimenari eragin eta ahots haren jabeari zegokion aurpegiaren bila aritu zen bere artean. Ezagutzen zuen jendea gogora ekartzeko ahalegina egin eta trumilka etorri zitzaizkion ahotsak eta aurpegiak. Anabasa hartan, nola kausitu bilaturikoa? Halako batean, aitzitik, besoa luzatu eta pistola kendu zion mozorrodunari. Koldartzat zuen Quimek bere burua eta ezin zuen konprenitu hura egitera zerk bultzatu zuen. Edozein izanik ere egin berri zuenaren zioa, bere burua harriturik utzi zuen Quimek hala jokaturik. Harrigarriena, dena den, hari mozorroa erauzi, eta berak espero zuen Richard Murrayrekin topo egin beharrean, bere buruarekin topo egitea izan zen.

Lagunak kontaturiko amets horretaz oroitu gara, haren heriotza jakin dugunean. Haren amak hots egin digu. Negarrari ezin eutsiz aditu dizkiogu semearen heriotzaren zehaztasunak. Etxeko barne patiora bota omen du bere burua. Ikaraturik, hitz kontsolagarri zenbait bilatu dugu geure baitan, Jainkoak berak ere ezin kontsola dezakeen Quimen ama gajoarentzat. Zer edo zer zezeltzera heldu gara ozta-ozta.

Telefonoa utzi eta sukaldera joan da Sol zuzenki. Izotza eta pare bat edalontzi ekarri ditu handik.

Topa egin dezagun, egin dit gonbita, begiak dir-dir.

Quimen alde, erran dugu biok batera, edalontziak hustu aitzin.

Edalontziak berriz bete eta berriz nahi izan du topa egin Solek: Gure alde, hiru mosketeroon alde!

Gure hobe beharrez proposatu du Solek hori, bistan da, baina zer pentsatua eman dit. Sol bizkorra da, argia, eta jakin du, hitz gutxi horien bitartez, gure sentipenen berri zehatza ematen. Egia da, sekula baino batuagoak gaude hirurok. Hain batuak, hain elkar harturik, non laster Quimen gibeletik joanen garen geu ere. Seguru gaude. Gure buruaz beste egiten ari gara geu ere. Beste gisa batez, lasai eta patxadan, baina horrexetan ari gara, azken finean. Tragoz trago eta botilaz botila ari gara, presarik gabe, baina horrexetan. Ez da harritzekoa, gainera, Quimen gibeletik joan izan baikara beti, futbolearen nahiz bizitzan bertan. Jakina, hura baino motelagoak gara. Hura bezain leialak gara, ordea, eta ez dugu berriz bakarrik utziko.

Berriz ere Quimen alde egin dugu topa.

ITXAROPEN

Zarama naiz. Gogorra da esatea, jakina, baina onartu beharra dago. Gezur gehiegi esan diot neure buruari, eta bada garaia egiaren bat aitortzeko. Hil ala bizikoa da neuretzat. Zarama naiz benetan eta, zarama izateari utzi nahi baldin badiot behintzat, horixe onartu behar dut ezer baino lehen, mozkorrak bere mozkorkeria onartu behar duen bezala. Nahitaezkoa da sendabidean aurrera egitekotan. Hori gabe alferrikakoa nuke gainerako guztia. Horrenbeste erakutsi zidan aita alkoholiko baten semea izateak.

Egunero edaten zuen: bazkarian, iluntzean lagunekin tabernarik taberna, afarian. Edozein aitzakiak balio zion botila eskuratzeko. Eta haserretu egiten zen, amak edo izebak edo gutariko beste edonork gehiegi edaten zuela leporatuz gero. Bere antzera edaten omen zuen haren aitak, eta hala ere laurogeita hamahiru urterekin hil zen, burua argi eta lotan zetzala, zaharraren zaharrez. Aita, aldiz, aitonak baino hogeita hemezortzi urte gutxiago zituela hil zitzaigun, gripe baten ondorioz, txikituta zituen giltzurrunek huts eginda.

Haren heriotzak ez ninduela batere mindu esan nahiko nuke, baina gezurra litzateke. Aita eta senar axolagabe eta traketsa izanagatik, ez zen gizon txarra. Egia da gehiago arduratzen zela bere lagunez, gutaz baino. Dena den, ez da batere berdina gaur egun uste dudana eta orduan uste nuena. Aita gorrotatu behar zuen gatzetxo bat nintzen, adinak eskatzen zidan, noizbait gure semetxoari neu gorrotatzea eskatuko dion bezalaxe. Eta poztuko naiz, horixe poztuko naizela, horrek adieraziko baitu oraindik bizi garela, hildakoak ere gorrota daitezkeela ondo baino hobeto jakin arren.

Kokaina da gustukoa izan dudana droga bakarra. Alkoholak inoiz ez nau erakarri. Aitagatik seguru asko. Haxixak ere ez, moteldu eta lotan uzten nauelako beti. Eta hies-aren sasoiari heroinak aspaldi galdua zuen noizbait izan omen zuen xarma.

Anfetaminekin hasi nintzen, koka geroago etorri zen. Hamabost-hamasei urte izango nituen lehendabiziko speed lerroa sudurreratu nuenean. Aste nagusian izan zen. Gaupasa egiteko baimena genuen, eta aprobetxatu beharra zegoen. Santutxuko gure betiko tabernara elkartu ginen lagunok bazkalostean. Gurasoek emandako dirua bildu eta Somerara jaitsi ginen zuzen. Bertan erosi genuen. Batzuek berehala nahi zuten, baina gauerako gordetzea erabaki genuen gehienok, Gas plazan egongo zen rock kontzertu itzelerako. Txosnetatik ia atera gabe eman genuen arratsaldea, eta bertan ginen su artifizialak hasi zirenean ere, mozkor samar ordurako.

Gas-ean aurre-aurrean ipini eta, deiadarka eta txaloka, burua astindu genuen izena ahaztu dudana talde heavy batekoekin batera musikari jarraiki, buruaz libratu nahiko bagenu bezala. Elkarri bultzaka, salto eta jauzi egin genuen nekatu gabe. Zoragarria izan zen. Zoragarria bezain laburra zoritxarrez, arin baino arinago heldu zitzaigulako etxeratzeko sasoiari. Ordulariari begiratu, eta sinesgaitza zitzaigun denbora hain bizkor igaro izana, hain oharkabean. Arratsaldea eta gau osoa berbetan eman bagenituen ere, hamaika kontu interesgarri geratu zitzaigun

aipatu gabe mihi puntan, eta biharamunean, ohean nentzala lokartu ezinik, iluntzean lagunekin hitz egin beharreko kontuen zerrenda osatu nuen neure artean.

Inoiz ez genuen nahikoa astirik. Gauza gehiegi gertatzen zen gure inguruan dena aipatu ahal izateko. Lanpetuta genbiltzan. Neskekin batez ere. Artxandara joaten ginen batzuetan, bikoteak espiatzera. Ezer gutxi ikusten genuen, jakina, bikoteek autoetan zihardutelako eta ez edonoren begi-bistan. Gauez azaltzen ziren hara eta, beraz, gutxitan izaten genuen zer edo zer ikusteko abagunea. Baina horrek erakargarriago bihurtzen zuen dena guretzat. Begiak ezin zuena, benetan zen baino ederrago ikusten genuen irudimenari esker, interesgarriago. Emakume baten zenbait zentimetro azal hautematea nahikoa genuen, aldizkari pornografikoetan miretsia berritzeko.

Zakila jaten ari zaio, iragartzen zuen Juliok, eta ez zuen gehiago esan beharrik guk ere gauza bera ikusteko. Julio taldeko zaharrena genuen, eta besteok baino urtebete gehiago ez izan arren, munduko jakintsu handienetakotzat jotzen genuen, edozein guraso edo irakasle baino jakintsuago, noski.

Aste nagusian ezagutu nuen Begoña, ez speed lehendabizikoz dastatu nuen hartan, hiru urte geroago baino, haren lagun bat Juliorekin ibiltzen hasi zenean. Egun hartako gomuta gutxi geratu zait gogoan, eta geratu zaidan apurak zerikusi txikia du Begoñak kontatutakoarekin. Berbetan ihardun omen genuen egun hartan, eta Begoñak dioena sinestera, nahikoa luze. Bera hurbildu omen zitzaidan eta horrela izango zen seguru asko, lotsati samarra izan naiz-eta txikitatik, batez ere neskekin. Egun hartan horiz jantzita zegoela, ordea, ez zait ahaztu, ezta zein polita iruditu zitzaidan ere. Tamalez, urtebete igaro zen ostera ikusi nuen arte.

Garbiñeri, Julioaren neskeri, noizbehinka galdetzen nion bere lagunaren berri, zeharka beti. Zapuztuta geratzeko beldurrez seguruena, ez nituen nire sentimenduak agerian utzi nahi. Bartzelonan dago, izaten zen Garbiñeren erantzuna.

Han ikasi eta oso tarteka etortzen omen zen Bilbora. Horregatik pasa zen urte oso bat berriz ikusi aurretik, eta beste bat, harik eta parranda gau batean ametsetan baino gertatzen ez zitzaidana benetan gertatu zen arte. Urte bi lehenagoko gau hura ez bezala, ondo gogoan dut oraindik gure estreinako musuarena.

Ruper Ordorikak Plaza Barrian kantatu behar zuen eta Kortatuk (edo Negu Gorriak ote ziren ordurako?) Gas-ean. Neskek Plaza Barrira nahi zuten, Gas-era mutilok. Erdibide bat topatu genuen azkenean, eta bietatik apur bat ikustea erabaki genuen. Gas-era heldu ginenerako bost axola niri Kortatu, Negu Gorriak edo munduko beste edozein talde. Begoñaren hitzetarako behar nituen nik belarri biak oso-osorik. Gorputz osoa behar nuen harentzat, ordurako geldi ezinik nuen gorputza. Lerrotxo zuri bat ipini nion Begoñari zoko batean, eta orain ezetz eta ezetz tematzen bazait ere, badakit horrela izan zela. Gau hartako speedak bultzatuta bezala, elkarrekin jarraitu genuen uda amaitu eta Bartzelonara itzuli behar izan zuen arte. Eta handik aurrera ere bai, gutxienez hilabetean behin joaten nintzaiolako bisitan.

Diseinua ikasten zuen eta hainbat ikaskide euskaldunekin bizi zen, El Born merkatuaren ondoan, eta bertan ematen genuen egunaren zatirik luzeena, ohean. Gauetz baino ez ginen kaleratzen, zer edo zer jatera edo Begoñak hainbeste maite zuen auzo gotikoan eskutik lotuta ibiltzera. Ikasturte bat pasa genuen horrela. Bilbora itzuli zen Begoña gero, lanera. Ordurako hala nenbilen neu ere, argigailuen artean.

Ikasle txarra betidanik, elektronika ikastera bidali nindutenean ikasitako apurrari esker sartu nintzen argizatze kontuetan. Diruz ni bezain urri zebilen antzerki talde batekin hasi nintzen, laguntzaile. Herririk herri ibiltzen ginen, gutxi kobratzen baina ikaragarri gozatzen. Argi txiki eta kolorezko paper soil batzuk nahikoa genituen antzezpenak behar zuen giroa sortzeko. Gai ginen ia ezerezetik eguna edo gaua sortzeko. Jainko koxkorrak ginen.

Asko ikasi nuen haiekin, eta ez argizatzeaz soilik, furgonetako ordu luzeetan entzun nuenari esker. Antzezle haietako bati zor diot zineman sartu izana ere, nitaz hitz egin ziolako bera protagonista zuen film laburraren zuzendariari. Texas zuen izena laburrak eta hango kartzelaren batean heriotzaren zain urtetan egondako preso baten azken orduak kontatzen zituen. Txarra zen, oso txarra. Hala eta guztiz ere, beste bat egiteko deitu zidaten ondoren, baita beste baterako ere handik gutxira.

Zoritxarrez, zinemaren sasoia kokarena ere izan zen niretzat. Travelling, kamera edo argiak bezain beharrezkoa zuten zinemagileek filmak egiteko. Kamera eskutan, argi naturala eta antzezle amateurrak erabil zitezkeen dirua aurrezteko. Koka, berriz, behar bezalako beti. Barra-barra ibiltzen zuten, baita edozein ezezagunen lehen laburra grabatzeko ere. Bazirudien hauts zuriek bihurtzen zutela zuzendaria zuzendari, ez norberaren talentuak edo lanak. Gauza bera esan zitezkeen antzezle, kameralari eta laguntzaileez ere, edo argizatzaileez, noski.

Benetan urte politik hasierako haiek, lan, barre eta parranda itzelezkoak. Begoña eta biok elkarrekin bizitzera joan ginen Errekaldera, bertan alokatu genuen etxe batera. Biok geniharduen lanean, eta handik laster bigarren eskuko auto bat erosi genuen, mendira eta oporretan joateko. Geu elkartu ginen aldi bertsuan sorturiko beste bikote batzuk bananduak ziren aspaldi samarrean eta jende askok harrিতuta begiratzen zigun, artean maiteminduta jarraitzen genuela ulertu ezinik. Ika-mika gogorrak izaten genituen, nola ez, baina, haietako bakoitzaren ondoren, suspertu baino ez zen egiten gure artekoa. Txundituta geunden geu ere, hain txundituta non batzuetan ezkontzaz ere berba egiten genuen. Elkarrekin bizi ginen, ezkondurik bezala, eta hala ere asmo horrekin jolasten ginen, batik bat ekaitzaren ondoko barealdi gozo haietan. Maitasunaren aldarean egin zitezkeen sakrifizioak goren irizten genion ezkontzari, betiko zorionaren bermea gure harremanean.

Luze berba egin eta lehen seme-alaba edukitakoan udaletxetik pasatuko ginela erabaki genuen azkenean. Eta kalkuluak egiten hasi ginen, seme edo alaba hori izateko unerik egokiena zein zitezkeen asmatu nahian. Diru apur bat behar genuen, jakina, baina handik urtebetera nahikoa izango genuela ikusi genuen. Afaltzera joan ginen hori ospatzeko eta, kafearen zain geundela, hurrengo urteko egun berean pilula utziko zuela idatzi zuen Begoñak beti alboan eramaten

zuen libreta gorrian: Maiatzak 5. Urtebete geroago, ostera, pilula hartzen jarraitzen zuen, nahiz neuk uzteko behin baino gehiagotan eskatu.

Begoña ez da egoskorra izatez, baina argi zegoen hartan ez zuela amore emateko asmorik. Maite ninduen, nire haurra nahi zuen, ez ordea hark aita drogazale bat edukitzea. Istilu galantak izan genituen hori zela eta. Dena bere onetik ateratzen ari zela esaten nion, koka gustatzen zitzaidala, bai, baina ez nindukala harrapaturik. Hark baietz, bestela saiatzeko ezer sudurreratu gabe bizitzen, ea zer gertatzen zitzaidan. Baketan uzteko eskatzen nion hasieran, gero ez, bizkor konturatu nintzelako lelo harekin jarraitzeko asmoa zuela. Erronka onartu nion, beraz. Onartu, eta galdu ere bai, estu loturik bainindukan hauts demonioak. Oso gaitza zen ingurukoak lerroak ipintzen ikusi eta haien eskaintzari ezetz esatea. Gaitza baino gehiago, ezinezkoa.

Nire drogamenpekotasunaren onarpenak, kokatik urrundu ordez, gehiago lotu ninduen. Kostata onartu nuen, oso kostata, eta horrek eragindako depresiotik kokak bakarrik ateratzen ahal ninduen. Irteerarik gabeko zirkulu baten barruan nengoen.

Madrilera joaten nintzen lanera orduan, gero eta gehiago. Ordurako oso film gutxi egiten zen Euskal Herrian, eta Espainiako hiriburura alde egin zuen hemengo ekoizle eta zuzendari askok. Haien atzetik abiatu behar izan genuen teknikook ere. Dena den, asteburuak Begoñarekin pasatzen saiatzen nintzen, Bilbon. Elkarrekin egoteko genuen egun pareta arin joango zelakoan, eta ez zapuzteko seguruena, koka edo haurrarena ez aipatzen ahalegintzen zen Begoña. Biok genekien hor zegoela gure harremanaren koska, ordea. Hitzez ezer ez adierazi arren, begietan irakurtzen nuen etengabe bidaltzen ari zitzaidan mezua. Horrela uste nuen behintzat. Gaur egun, aldiz, duda egiten dut. Kokazale zaharrengan hain ugariak izaten diren paranoiaren bat izan zitekeen neurea ere. Eta, egia esan, batzuk izan nituen, Madrilen batik bat. ETA zela eta, gertutik zaintzen zituen poliziak han bizi ziren euskaldunak, batez ere gazteak. Bat baino gehiago izutu zuten etxera ordu txikietan azalduta edo kalean hartu eta komisaldegira eramanda. Berehala zabaldu zen beldurra gure artean, beraz, eta edozein izkinatan, edozein tabernatan sentitzen nintzen espiatuta. Atzetik zetozkidala iruditzen zitzaidan eta norbaitekin egoten saiatzen nintzen, badaezpada ere. Hain handia izatera heldu zen neure paranoia, non egun batean erabaki nuen ezin nuela gehiago, eta lanean ari nintzen telesailaren atala amaitu.

Asmatu nuen. Dena zen errazago Begoñaren ondoan. Luze gabe hobeto nengoen, lasaiago, kontentuago. Hain nengoen pozik eta baikor, hain aldatzeko gogoz, non koka utziko nuela agindu nion. Atseginez entzun zidan promesa, nahiz eta isiltzeko eskatu, hamaika aldiz agindutakoa ari nintzela errepikatzen gogoraraziz. Egia zen, askotan esana nion gauza bera, gehiegitan, baina zintzo eta benetan guztietan. Benetan bezain alferrik. Ulergarria zitzaidan Begoñaren jarrera. Otsoa zetorrela behin eta berriz aldarrikatu, eta otsoa sekula azaldu ez. Nork sinistuko zidan? Nire betiko asmo on hutsala ez zela frogatzeko eskatu zidan. Froga? Zertaz ari zen? Bazekien Madrilen gorriak pasa nituela, bazekien beldurrak airean ibili nintzela eldarnio eta paranoiak tarteko, ez al zen hura nahikoa serio ari nintzaiola jakiteko?

Proyecto Hombre-n sartu behar duk, esan zidan orduan.

Baietz nik, zinemara joango ginela esan izan balit legez. Ezer gutxi nekien erakunde horretaz. Jonki kontu bat zen hura niretzat. Eta neure burua haien parean ikustea ez zen samurra. Onartu egin nion proposamena, Begoña pozik uzte aldera batik bat.

Bera arduratu zen guztiaz. Informazioa bildu, deitu eta bertakoekin berba egin zuen.

Bulego argitsu batera pasarazi ninduten. Begoña kanpoan geratu zen nire zain.

Bostekoa eskaini zidan Ramon Goiti zeritzan gizon bizardun batek. Musu ingurua urdinduta zuen eta beltz-beltza gainerakoa. Urrezko kate bat zeraman lepoan, Kristo edo Ama Birjinaren irudiari eutsiko ziona, nik uste. Begoñak azaldua ziola nire arazoa esan zidan lehenengo eta behin. Hala ere, emazteak (hitz hori erabili zuen) esandakoa baino askoz inportanteagoa omen zen neuk esateko nuena. Nik, ordea, gutxi nuen esateko, perpauz bakar bat justu: Koka utzi nahi dut.

Asko adierazi nion hor, dena. Goitik, aldiz, gehiago nahi zuen. Pozik emango nion gehiago, baina esku-hutsik nengoen eta, nire buru motelduaren zokoak sano arakatu arren, batere ez nuen aurkitu pop art tankerako bizar xeble haren jabea lasaitzeko. Hala ere, nekatu gabe ziharduen hark, niri galde eta galde. Antzeko galderak egiten zizkidan beti, egiteko era aldatzen saiatuz aldi bakoitzean. Lasai hartzea erabaki nuen, nekatuko zen noiz edo noiz.

Baboa ni: Goiti, Gizakia Helburuko guztiak oro har, nekaezinak ziren. Nekaezinak, ez ergelak. Goitik zer nahi zuen argi zegoen. Nire moduko zarama gizaki bihurtaraz zezaketela ziurtatu nahi zuen itaunketa amaiezin haren bitartez. Ordu erdia baino ez nintzela bulego barruan egon entzun nion harriturik Begoñari handik ateratakoan. Goitirekin emaniko nire lehen ordu erdia, beste hainbaten estreinakoa.

Bospasei bider joan behar izan nuen Deustuko etxe hartara. Goitik hartu ninduen guztietan. Bostekoa eman, zelan zagoz galdetu eta berehala lotzen zitzaion betiko itaunketari, bezperan utzia zuen leku berean. Neure paranoiagatik izango zen beharbada, baina apur bat beldurtu ninduen. Txikitan izu-ikaratan utzi ninduen film bat ekartzen zidan gogora nire egoerak. Neguko gau batean telebistan ikusiriko hartan denborak ez zuen aurrera egiten, ordu bera adierazten zuten beti ordulariek: elizakoak, udaletxeak, eskola, lantegi, denda eta etxeetakoek.

Egun batean, berriz, onartuko nindutela jakinarazi zidan Goitik, nire harridurarako eta Begoñaren pozerako. Inozoa ni, ezin orduan susmatu zetorkidana. Sindromearen infernua ez dut hemen berrituko, gaixotu egiten naiz-eta gogoratze hutsaz. Izugarria izan zen. Eta haren ondorengoa ez zen askoz gozoagoa izan. Telefonoa, txartelak eta diru guztia kendu zizkidaten. Edonora joateko Begoñak lagundurik joan behar nuen. Lana eta lagunak utziarazi zizkidaten. Alkohola debekatu zidaten. Eskerrak tabakoa onartu zidaten behintzat. Gainera, hori dena gutxi zela iritzita beharbada, komunitatean (horrela esaten zioten) bizi behar izan nuen bost

hilabetez. Bertan lo egiten nuenetan izan ezik (birritan aste gehienetan), han egoten nintzen egunero, iluntzean etxera bueltatu arte.

Goiti bizardunaren ordez Edurne zeritzan emakume mikatz batek hartu zuen nire arduraren orduan. Ez zen seguru asko maltzurra, baina, nire moduko jendilajearekin urtetan iharduteak zailduta, bazekien zelan jokatu. Moja izango zela iruditu zitzaidan hasieran, baina ezetz esan zidaten nire kideek, ezkontuta zegoela.

Hamar bat ziren, ni bezalako kokazale damutuak denak. Ondo konpontzen ginen, eta eskerrak, egun osoa pasatzen genuelako elkarrekin. Lanean, telebistari begira edo xakean nahiz partxisean ari ez ginenetan (kartak erabat debekatuta genituen) berbetan egongo ginen, gure bizitza elkarri kontatzen, gure zokorik zokoenak ere denen begi-bistan uzten. Edurneren begirada zorrotzaren pean sarri.

Pentsatzea ez da sekula izan gehien egin dudana. Bizi egin naiz, batez ere. Gauzak etorri bezala hartu, eta aurrera. Han, aldiz, pentsatzera behartzen gintuzten: amaz, aitaz, emazteaz, neure buruaz. Buruko mina izateraino hausnartu behar izan nituen kontu horiek, nazkatzeraino. Nire barnea arakatu, eta inoiz susmatu gabeko zulo beltz bat aurkitu nuen. Eta kiratsa zerion, higuigarria zen. Orduan onartu behar izan nuen estreinako orain honen ondo dakidana: zarama nintzen, zarama naiz.

Ama, aita, Begoña, neurekoi jokatu dut hirurekin. Itsu maite ninduen amak; seme-alabetan zaharrena ninduen eta, seguru asko, ni nintzen benetan inoiz desiratu zuen bakarra. Aitari, berriz, gorroto nion. Zorionez, han jabetu nintzen haren gogortasuna itxura hutsezko eta behartua zela. Eta maitatzen hasi nintzen, nolabait, ulertu nuelako funtsean neu bezain ahula zela. Horrelakoak ginen han geunden guztiok, egia esan, nahiz eta guk bestela uste izan. Bai, borondategabeak ginen, errealitateari buruz buru begiratzeko ezgauzak, bizizale amorratuaren mozorroaren azpian, oharkabea, heriozale porrokatuak.

Denok kakaz gainezka geundela jakiteak elkarrengana bultzatzen gintuen. Elkartasun hori, ostera, ederra izanagatik, arriskutsua ere izan zitekeen, Edurneren iritziz. Taldeak laguntzen ahal zigun, jakina, baina bertan gozo egotera eramaten ahal gintuen. Horren arriskurik ez, nire ustez, Edurne bertan egonik. Lagun bat baino gehiago kanporatu zuten, eta batek baino gehiagok alde egin zuen, hango bizimodua gehiago eraman ezinik.

Hilabeteak eman nituen berba eta berba, iraganera eraman ninduen bidaia batean. Leku ospela da iragana, ez inolaz ere oroimenean gordetzen dugun erresuma epela. Gaizki pasatuko zuten gurasoek dena falta zen sasoi hartan. Nahikoa lan seme-alabak ikastera bidaltzen, gure traumez arduratzeko. Inor gutxik zekien orduan hitz hori bazenik ere. Dena den, inoiz seme-alabarik izanez gero, trauma guztietatik babesten saiatuko nintzela erabaki nuen. Badaezpada ere. Eta neskato bat balitz, hobe, Begoña arduratuko baitzen nire klona izan ez zedin.

Horrelako kontuak nerabiltzan behin eta berriz neure artean, itxaropenez eta –zergatik ukatu?– apur bat beldurrez ere bai. Begoñak bazuen nire burutapenen berri, baina ez zitzaion

mutila ala neska izatea axola, osasuntsua izatekotan. Dorleta izendatuko genuela esan nion, txikitan eskolan ezagututako norbait gogoan. Onartu egin zidan, neska izanez gero. Hala ere, gaineratu zuen, Gizakia Helburukoa amaitu beharko duzu beste edozeren aurretik.

Hilabete luze horien ondotik, beste urrats bat egin nuen sendabidearen ibilaldi amaigabearen ere. Bergizarteratzea esaten zioten gizon libre eta osasuntsu bihurtuko ninduenaldi horri. Lana topatzea nuen inportanteena orduan, izan nuen azkenarekin zerikusirik izango ez zuen beste edozein. Bila hasi nintzen, beraz, baina, ikasketa gutxikoa naizenez, inon ez ninduten nahi. Goizero egunkaria erosi, lan eskaerak begiratu, eta telefonoz deitzeari ekiten nion. Berriz hots egiteko esaten zidaten batzuetan, beharbada laster izango zutela ni bezalako norbaiten premia. Gainerakoetan, ezta hori ere.

INEMera ere hurbiltzen nintzen. Amorragarria egunak modu horretan pasatu behar izatea.

Bai Edurnek bai Begoñak lasai egoteko esaten zidaten, zerbait topatuko nuela berandu baino lehen. Esan, erraz esaten da, baina, egunak joan egunak etorri, Begoña lanetik etxeratu eta ni telebista parean topatzea gogorra zen gero. Biontzat.

Itxura egiten saiatzen zen, sentitzen zuena ezkututzen eta alai agertzen, ni gehiago hondora ez nendin. Asteak eman nituen horrela, arratsalde batean Begoñak niretzako lan bat zuela esan zidan arte. Norbait behar zuten bere koinatuaren dendan.

Rafak, Begoñaren ahizparen senarrak, Indautxun du denda. Loreak saltzen ditu. Berak bezeroak eta euren eskaerak hartzen zituen, eta neu eskaturikoa ahalik eta hobekien prestatzen saiatzen nintzen; Rafaren aginduei jarraiki lore sortak atontzen. Mota eta kolore ezberdinekoak nahasten nituen. Ureztatu eta garbitu, sortak paperean bildu, eskaeraren arabera beti, ez baitira berdinak ezkontza edo hiletakoak, jakina. Batzuetan dendaren atzealdean lan egiten nuen, beste batzuetan, aldiz, furgoneta hartu eta loreak banatzera joaten nintzen. Bada lan txarragorik. Neure argiekin jarraitu nahiago nuen, dudarik gabe, baina ez nintzen gehiegi nekatzen edo aspertzen. Rafak ondo hartu ninduen hasieratik, eta, nire arazoaren berri zuela, ahalegintzen zen nirekin egonarriz jokatzeko. Neu ere ahalegintzen nintzen.

Hilabete gogorrenak atzean utzita, inoiz baino hobeto geunden Begoña eta biok. Otorduak elkarrekin egiten genituen eta, afalostean, alokatutako bideoak ikusten genituen lantzean behin. Tarteka Gizakira joaten nintzen eta, Begoñak kontatzen zidanez, han baikor ziren nire etorkizunaz. Ondo ari omen nintzen, haiek espero baino hobeto.

Hain erabatekoa izatera heldu zen nire konfiantza eta Begoñaren harrotasuna, ze Gizakian amaitzeko pare bat hilabete falta nuela, pilula hartzeari utzi ziola iragarri zidan. Inoiz baino gehiago maite nuela esan nion, eta benetan.

Gizakian amaitu nuen egunean, afaltzera joan ginen biok. Egun handi haren ospakizuna biribiltzeko, haurdun zegoela esan zidan Begoñak kafe-sasoian. Mutu, izoztuta bezala utzi

ninduen berriak. Kezka aire bat nabaritu nuen Begoñaren aurpegian, eta orduan baino ez nuen ahoa zabaldu, egiten ahal zidan oparirik onena egin berri zidala esateko.

Atzera jaio nintzelako irudipenak ez ninduen hurrengo hilabeteetan utzi. Ahaztua nuen bizimodu hark egunero harritzen ninduen. Kontu txikiez gozatzeko gaitasuna, pozgarria izateaz gain, harrigarria ere bazen. Begoñarekin izandako berbaldi garrantzi gabeenak ere edozein hauts zurik beste asebetetzen ninduen. Bai, horrelako konparaketak egiten nituen nirekiko sarri, artean kokaina burmuinean nuen seinale. Hura ahazteko egin nuen ahalegin mingarriaren ondotik, penagarria irudi zezakeen ezin ahazte horrek. Eskerrak Gizakian kontu hori behin baino gehiagotan aipatu eta garrantzi handirik ez ematen ikasita nengoen. Begoña puztu ahala, puztu zitzaidan harenganako maitasuna ere. Belarria sabelean ipini eta alaba aditzen nuen zozoturik –gero eta seguruago nengoen neskatoa zena. Lagunik gabe jarraitzen nuen, baina lasai nengoen. Begoñarena izan ezik, ez nuen inoren beharrik. Zinemara edo osteratxo bat egiten joaten ginen. San Mamesera ere joaten nintzen noizbehinka, Athleticzale itzela den Rafak gonbidaturik. Horrela, Begoñak eta Rafak lagunduta, igaro ziren egunak, asteak eta hilabeteak. Bizimodu beti berdinarean abantailez jabetuta, beldurrik gabe begiratzen hasi nintzaion geroari. Ziur nengoen edozein arriskuri aurre egiteko gauza izango nintzela, Begoña aldamenean edukirik, bizitzak ipinitako tranpetatik onik aterako nintzela. Horregatik, poza besterik ez nuen sentitu Juliorekin topo egitean atzo.

Urteak ziren ikusten ez nuela, argiekin hasi nintzen sasotik, gutxi gorabehera. Gutxitan agertzen nintzen Santutxura, eta hango lagun gehienen arrastoa galdua nuen, haiek nirea galdua izango zuten legez. Dena den, amari adituta edo, banekien Julio itsasoan pilotu zebilena.

Indautxun egin genuen topo, lanetik atera berria nintzela. Larrua beltz, bibotea sarri eta burua soiltzen hasia izanagatik, behingoan ezagutu nuen. Hark ere segituan ezagutu ninduen, orain ilea motz-motza eduki eta nire janzkera seko diferentea izan arren. Elkar besarkatu genuen, estu, luze. Hunkiturik, hitz egiteari lotu eta arin konturatu nintzen hura nire betiko laguna zela, bezperan bereiztu eta biharamunean atzera bildu izan bagina bezala. Taberna batera jo genuen. Maltaren bandera zeraman petroliontzi batean nabigatzen zuen Juliok, Itsaso Beltzetik Atlantikora eta buelta. Lanbide gogor eta bakartia omen zen, baina ondo ordaindua, eta, ezkongabe jarraitzen zuenez, berarentzat egoki samarra. Maite zuen batetik bestera ibiltzea, maite zuen askatasuna. Hori alde batetik. Bestetik, andre asko egoten ei da portuetan marinelen esperoan. Horrelako aukera izanik, zertarako bakar batekin ibili?

Ez nion Juliores galderari erantzun. Begoñaz gogoratu nintzen, baina bere kontaketa jarraitzen utzi nion. Portu bakoitzeko andreen ezaugarrien berri ematera zihoakidala, bion edalontziak hutsik zeudela ohartu eta beste taberna batera joateko esan zidan. Oso bakanetan sartzen naiz tabernetan, Begoña edo Rafarekin beti, baina onartu egin nion eskaintza. Aurrenekoan neuk eskatu nituen tragoak. Bigarreanean, aldiz, Juliok eskatu nahi izan zituen. Garagardoa, ezta?

Baietz nik, baina alkoholik gabea.

Alkoholik gabea!

Gizakia Helburu, nire mendekotasuna, dena kontatu behar izan nion. Arretaz entzun zidan. Hala ere, bere begiradan errukia eta ironia batzen zirela iruditu zitzaidan. Gero, ni isildu eta Julio berbetan hasitakoan, zuzen nengoela konturatu nintzen.

Itsasoan ni bezalako asko ezagutu zuela esan zidan, berak ere ondo ezagutzen zituela drogak, nik ezagutzen nituenak, baita horiek baino okerragoak ziren beste zenbait ere.

Ezagutu, denak, esan zidan, baina erabili neurrian beti, droga neuk menperatuz eta ez alderantziz.

Inbidiaz begiratu nion. Juliok, aldiz, samatik hartu eta berarengana erakarri ninduen, ni ere gogorra nintzela esanez. Kokainaz libratzeko gauza izan nintzen, eta horrek agerian uzten zuen, haren aburuz, zein indartsua nintzen. Bere edalontziaz nirea jo eta topa egin zuen: Hire alde. Sekulakoa duk-eta egin duana.

Ezin jakin zenbat alkoholik gabeko garagardo edan ote nuen ondorengo tabernetan. Egarritu egiten gintuen berriketak, eta elkarri kontatzeko askotxo genuen, hain bolada luzean bereizita egon ondoren. Dena den, gehiegi edaten ari zela iruditu zitzaidan. Segituan mozkortuko zen, hala jarraituz gero.

Goazemak afaltzera, esan nion, gose nauk.

Gustura genbiltzan, oso gustura, eta merezi zuen berbaldiarekin patxadaz segitzea. Alde zaharrera joatea erabaki genuen. Bidean, ostera, Begoña etorri zitzaidan gogora. Telefonoz deitu behar niola azaldu nion Juliori. Hark baietz, deitzeko, ezagutzen zituela bikote bizimoduaren ajeak eta horregatik ez zela ezkondu, gorroto zuela inoren edo ezeren menpe egotea.

Haurdun zagok, zortzi hilabetekoa, kontatu nion neure burua zuritu nahian.

Jatetxetik bertatik hots egin nion. Ez zuen erantzuten. Ordulariren bat bilatu zuten nire begiek. Ama edo ahizparenean egongo zela pentsatu nuen. Geroago deituko nion atzera.

Semearena kontatzeko eskatu zidan Juliok, telefonotik itzuli nintzenean. Alaba izango zela argitu nion.

Ekografia ikusi duzue?

Ez. Baina bazakiat.

Menua aztertu eta, jana aukeraturik, ardoa eskatu zion Juliok zerbitzariari.

Ura ere bai, mesedez, gehitu nuen nik.

Nire eskaria aditu eta behingoan ilundu zitzaion bekokia lagunari: Uraz jan behar duk txuleta? Ondo duk hire burua zaintzea, baina gehiegikeriarik gabe, aizak. Neurrian zagok koska. Ez al ziaten hori Gizakia edo dena delako horretan azaldu? Ardoa duk, txo, naturala. Ez duk kokaina.

Zentzuzkoa zirudien Julioaren aholkuak, eskarmentu handiko norbaiten hitz zuhurrak, inondik ere.

Gainera, jarraitu zuen, hire seme edo alabarena ospatu behar diagu, eta ez diagu ospatuko ur hutsez, ezta?

Horixe izan zen argudiorik erabatekoena niretzat. Arau guztiek, estuenek ere, badute salbuespenik. Behin bakarrik bihurtzen da inor aita estreinakoz. Ba ote aitzakia hoberik?

Hots zorrotz bat aditu dut halako batean, telefono batena, antza. Jo eta jo ari da, baina ni mugitu ez. Ametsa beste nonbaiterantz eramaten saiatu naiz, isiltasun urragaitzerantz. Ezin. Ahanzten ahalegindu naiz ondoren. Alferrik. Hor dihardu temaz. Hain tema txarraz, ze begiak zabaltzera behartu nauen azkenik. Nekez zabaldu ditut, betileak berunezkoak banitu bezala. Mina nabaritu dut, eta buruan ere mina. Lehor, kartoi eginak ditut eztarri-mingainak. Zer ordu da? Non nago? Goizeko zortziak direla dio iratzargailuak, neure betiko iratzargailuak hain justu. Etxean nago, beraz. Ahal bezala ohean agondu eta, lotan oraino, altxatzen hasi naiz apurka. Telefonoak berean segitzen du errukigabe, eta muin-muineraino zulatzen dit burua. Mingarria da. Hala ere, ura behar dut beste edozer baino lehen, ezingo dut ez berba ezta beste ezer ere egin bestela. Sukaldera joan naiz arineketan.

Bete-betean jo nau egunaren argiak. Txorrotatik bertatik edan dut. Orduan baino ez naiz hitz egiteko gauza sentitu. Bai? ilun bat atera zait eztarriaren sakonenetik. Rafaren ahotsa ezagutu dut. Ea non ibili naizen galdetu dit, haserrea ezkutatu ezinik. Bart ordu biak arte ihardun ei du niri deika. Ezer erantzuteko abagunerik eman gabe, bezperako hamarrak hamar gutxitik aita naizela jakinarazi dit.

Zelan dago Begoña?

Begoña nahikoa ondo.

Eta alabatxoa?

Semea eduki duzue. Gurutzetan dituzu biak, zure zain.

Dutxatu, jantzi eta kalera jo dut arrapataka, taxi baten bila. Zorte ona eduki dut behingoz eta arin topatu dut. Sasoi honetan Bilbo zeharkatzea ez da lan makala, eta gidaria nire eskaera larriei jaramon egiten saiatu den arren, astiro joatera derrigortu du trafikoak. Aldika inguratzen gaituzten autoei eta aldika ordulariari begira joan naiz, behar izan nauenean Begoñak ez nauela ondoan eduki burutik kendu ezinik: gehien behar izan nauenean, nik kale.

Gelditu baino lehen ordaindu nahi izan diot taxilariari. Ulertu du. Jende piloa dabil Gurutzetan. Zuriz jantzitako norbaiti galdetu diot. Harrerara bidali nau, bertan esango ei didate Begoña non topatu.

Senarra zara?

Halako errieta isil bat sumatu dut harrerakoaren itaun itxuraz kaltegabe. Ez dut nire susmoaren funtsaz gogoeta egiteko astirik, ordea.

Rafa topatu dut gelako atearen ondoan nire zain. Zabaldu egin nahi izan dut, baina hark galarazi egin dit: Txarto pasa du Begoñak, oso ahul dago eta atsedena behar du. Utzi lo egiten.

Eta umea?

Begira, hasi zait, dendan gustuko izango ez dudan zerbait esateko erabiltzen duen ahotsaz.

Non dago semea? Zer edo zer gertatu al zaio?

Lasai zaitetz apur bat, mesedez. Arazoak izan ditu. Gela berezi batera eroan behar izan dute.

Gela berezi batera! ia oihu egin dut.

Ixo! Hori baino ez dakit. Berba egizu medikuarekin.

Ezker-eskuin begira, medikuaren bila hasi naiz. Inon ez da ageri. Sarreran ez bezala, jende gutxi dabil ospitaleko korridoreetan, gaixoen senideak gehienak. Uniforme zurien arrastorik ez, baina. Artega nago, gero eta artegago. Korridoreetan barrena noala, erizain bat aurkitu dut azkenean.

Beldurtu egin dut. Gainera etorri zaion norbait ikusi eta beldurtu egin da. Begietan nabaritu diot.

Neure semetxoa!

Apur bat lasaiarazi, eta nor naizen ulertu duela esan dit. Medikuaren bila joango dela eta bertan itxaroteko bueltatu arte. Orduantxe bai ezin izan diodala eutsi: orain arte mediku aluaren bila ibili naizela azaldu diot deiadarka, gure lehen semea dela, txarto dagoela eta lehenbailehen ikusi gura dudala. Amore eman ezean izugarrikeriaren bat egingo ote dudan beldurrez, jarraitzeko esan dit eta ez ikaratzeko ikusi behar dudanarekin; hemen dituzten jaioberri gehienak ahulegiak daudela, besterik ez, eta itxura txarra dutenak ere sendatuko direla denboraren poderioz. Horixe egin dut, beraz, atzetik joan natzaio, orpotik, ia haren bizkarrean arma bat edukiko banu bezala, nire arnasa saman senti dezan. Irakurri ezin izan dudana zerbait ageri da erizain ikaratuak zabaldu duen atean. Gela luze bat ikusi dut, alde banatan sehaska moduko batzuk dituen elkarren segidan eta erdi itzalean.

Hitz pare bat etorri zait behingoan gogora: Death Row, Texan zeritzan film labur hartatik buruan izan dudana. Amerikako espetxe batean aulki elektrikoan hiltzera kondenaturiko preso bat lege sentitu naiz, bere azken daraman korridorean barrena. Belaunak dardarka ditut, nekez ibil naiteke. Albo bietara begiratu eta ikaratu egin nau begibistan dudanak. Ezkerreko

